



ARGIA

Justizia patriarkalaren labirintoa



**MARI JOSE AZURMENDI
EUSKARAREN
MILITANTEA**

**BOLSONARO MILITAR
OHIAREN GARAIPENA
BRASILEN**

**SMAC: KATALUNIAKO
MUSIKARI AKTIBISTEN
SINDIKATUA**



eguna euskaraz! irakurtzen hasteko



itsasargiak
kultura
beranduegi / humorea
bertso zaharrak
kirol tribiala
perretxikoak
kultur tribiala
estaturik gabeko herriak
esaera zaharrak
ondarea
bizi baratzea
ARGIA jendeak esana
aldaketa klimatikoa
euskararen erabilerarako erronkak
Zeruko ARGIAren eta ARGIAren begietatik



 **ARGIA**
argia.eus

9€

Erosi ARGIAren Azokan
azoka.argia.eus
azoka@argia.eus
© 943 371 545

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Aktualitatea
- 7 Gaizki erranka
- 7 Ez hanka ez buru
- 8 Ekonomiaren talaian
- 10 Noam Chomsky: Brasilgo kolpe ezti batek uhinak zabalduko ditu munduan

IRITZIAK

- 17 June Fernández
- 18 Jose Ignazio Ansorena
- 19 Nerea Ibarzabal
Leire Narbaiza Arizmendi
- 20 Katixa Dolhare-Zaldunbide


 AZALEKO ILUSTRAZIOA:
XABIER SAGASTA

- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 AZOKA
- 41 KOMUNITATEA
- 45 ARTEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
MARIAMA DIALLO
- 54 BERANDUEGI

*Eskuin muturreko
Jair Bolsonaro irabazi ditu
hauteskundeak Brasilen.
Pello Zubiriak erreportajea
egin du gaiaz.*

SAKONEAN

- 12 | Maria-Jose Azurmendi: "Katedradun izateko babesa izan nuen, baina ez gizonezko gehiengoarena" / Miel A. Elustondo
- 22 | Indarkeria matxista salaketak: Prozesu judizialaren argi-ilunak / Amaia Lekunberri Ansola
- 28 | Kataluniako prozesutik ikasten: Euskal Herrian zer? / Z. Oleaga
- 32 | Felix Zubia osasun arloan euskaraz lan egiteko bidez / Bilbo Hiria / Onintza Irureta
- 34 | Afrikako haziak babesten / Oskar Epelde
- 42 | SMAC: Kataluniako musikari aktibisten sindikatuko kideekin elkarrizketa / Lander Arretxea Bereziartua
- 46 | "Payadorea beti izan da ahotsik ez daukanaren ahotsa" / Dabi Piedra


ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE


**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Gipuzkoako Foru Aldundia


Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estixu Eizagirre.
Erredakzioa: Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estixu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Gorka Peñagarikano, Iñigo Igartua, Jon Torner, Lander Arbeláitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua: SS 837-2012.
ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus
Harpidetzak: harpide@argia.eus
Erredakzioa: kazeta@argia.eus

PANORAMA

Ez dugu ahazten

Rikardo Arregi saria jaso du ARGIAk ostiralean eta 1980an ARGIAri eutsi eta ekin zion lehenengo lantalde hari eskaini diogu. Langile talde horren ordezkari, Joxemi Zumalabe gogoan, Josu Landak, Iñaki Uriak, Joxemari Ostolazak eta Pello Zubiriak jaso zuten, Estitxu Eizagirre egungo zuzendariarekin batera.

Bere historia ahazten duen herriak arriskua omen dauka iraganean egindako akatsak errepikatzeko. Hala esaten dute.

Ez da hainbeste hitz egiten, ordea, historia ahazten duenak daukan beste arrisku batez: iraganean asmatu zuen lekuan, orain huts egitekoa.

Duela ia lau hamarkada, gure aurretik kazetaritza proiektu hau biziarazi zutenek asmatu zutelako gaude gu hemen.

Asmatu zutelako, esan zutenean euskal prentsak euskaraz izan behar zuela, gure hizkuntza burujabea izango bazen eta ez besteren etxeko maizter.

Asmatu zutelako, bere buruaren jabe izango zen hizkuntza horrek behar zuela, gutxienez, hedabide burujabe bat; hedabide bat non langileek izango zuten hitza eta erabakia, eta ez beste edozein interes-taldek.

Asmatu zutelako, berezko oztopoak eta jarritakoak gaindituz, hedabide hori bideragarri egiten, beste hedabide batzuk sortzen, egunkari oso bat martxan jartzeraino.


Ez ditugu ahazten gure aurrekoek egindako lanak.


Ez dugu ahazten lan hori egiteagatik jasan behar izan dutena.

Eta ez ditugu ahaztuko bide horretan galdu ditugun lagunak ere.

Ahazten ez dugulako gaude gu hemen. Nondik gatozen badakigulako. Gaur ARGIA egiten dugunok ere asmatu nahi dugulako, duela 40 urte ARGIA egiten zutenek bezala, gure garaikoak izaten eta, era berean, garai guztietarako balio duten printzipio batzuen arabera lan egiten: euskara, burujabetza eta independentzia.

Ahazten ez dugulako gaude gu hemen. Nondik gatozen badakigulako. Baita nora goazen ere.





MTVk casting bidez aukeratuko du nor egongo den BECeko ekitaldiko lehen lerroan.

t “Ez, ez da soilik kontzertu erraldoi bat MTVk Bilbora ekarriko duena, askoz gehiago da, eredu soziokultural zehatza da... eta horrela, besteak beste, casting bat antolatuko dute VIP sarrerak banatzeko. Ez, ez da nire eredu, inondik inora”

@KoldoTellitu

t “MTV hori baita, jendea kontrolatzea eta postuare alienatzailea, burmuin hutsentzat”

@Bedarlari

t “Eta imajinatzen dut diru publikoa jarri duten instituzioek ez dutela ezer esan”

@dulcemorgue

t “Niri primeran iruditzen zait castinga egitea, dena Bizkaia, Barakaldo, Bilbo... mundo osoan ezagun egitearen onerako izango da”

@PeacePiscis



Milaka lagun, euskara Nafarroa osoan ofiziala izan dadila eskatzen

Kontseilua

@kontseilua

Kohesioa, berdintasuna eta justizia eskatuz aldarrikatu da euskarak ofizial izan behar duela Nafarroa osoan. Kontseiluak Iruñean antolatutako mobilizazio performatiboak irudikatu du gaur egungo hizkuntzagatiko zatiketa gainditu egin behar dela. Hiru zutabetan abiatu da martxa eta herri desberdinetako euskaltzaleek eraman dituzte pankartak.

Amaieran egin den ekitaldian, hiru herritarrek hartu dute hitza lehenik. Unai Arellano kohesioaz aritu da: “Euskara da nafarron artean zubi eta atxikidura egiteko osagai ederra. Nafarroako berezko hizkuntza da euskara, eta euskara da batuko gaituen arragoa. Batasun hori behar dugu”. Nekane Otamendik berriz,

besteak beste galdera hauek egin ditu: “Gu nafarrak gara ala ez gara? Jakina bagarela! Eta orduan, zergatik tratatzen gaituzte ezberdin hizkuntzaz ari garenean?”.

Justiziaz hitz egin du Saioa Crespok: “Gaur hemen bildu garen nafarrok desio dugu gure ondorengoek gogoratzea nola lortu zen garai honetan benetako aldaketa Nafarroan, eta nola hasi zen bidezkoagoa izaten euskaldunokin”.

Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusia Nafarroako Parlamentuari zuzendu zaio: “Badakigu noren esku dagoen orain herritarrek berdintasunez hartuko dituen legea onartzea. Ausart jokatu, erakutsi aurrekoetatik desberdin jokatzeko duzuela. Guk geure lana egin dugu, gehiengo zabal baten eskaera duzue eskuartean. Orain, eraikin horretako ordezkarioi dagokizue erantzukizunez jokatzeko”.

“Zubietan eraikitzen ari diren erraustegiak %110etik gorako gairak gaituzten ereduak dira”

GURASOS

Milaka herritarrek Zubietako erraustegia geratzeko eskatu zuten Donostian, urriaren 27an. Egun batzuk lehenago GuraSOsek adierazi zuenez, %110etik gorako gairak gaituzten ereduak dira. “Tamaina horretako gairak gaituzten ereduak dira, erraustegiaren eraikitze eta zerbitzu lanen 1.000 milioi euroko gastua gipuzkoarrok 35 urtez hondakinen tasaren bidez ordaindu beharko dugu. Erraustegiko lanak berehala geldiaraztea eta kontratua etetea exijitzen dugu”. **NOAUA (2018-10-23)**



GAIZKI ERRANKA

Mintzatuz gero... Norekin, baina?



Santi Leoné
@ororostorm

Ez da naski Espainiako ezker guziaren leloa –ez gaitzen gu ere errazkerian eror–; bai, ordea, hedabideetan pisu handiena duen ezker ustez ilustratu baten lelo nagusietarikoa: “Mintzatuz gero, hau guzia konpon dezakegu”. *Problema katalana* da “hau guzia”, eta solas eginez erdiestekoa den konponbidea Katalunia Espainian gelditzea. Beharbada horixe izan da eta da *problema espainola*: jarrera toleranteena erakutsi nahi izan dutenek ere ez onartu izana independentzia konponbide bat izaten ahal zela. Ez bakarria; bai balizko konponbideetarik bat.

Beharbada horixe da *problema espainola*: jarrera toleranteena erakutsi nahi izan dutenek ere ez onartu izana independentzia konponbide bat izaten ahal zela

Horretan lagungarria izan da Guillem Martinezen bereizketa –herriaren prozesua, batetik; murritzaketak barkarazteko edota atzenarazteko asmoz alderdiek bulkaturiko prozesu ofiziala, bertzetik– hartu eta sinplifikatzea, *gertatutakoa* bi indar itsuren talka izan dela adierazteko: Alderdi Popularraren autoritarismoa (zeina ezaugarri politikoa baita) eta independentisten egoskorkeria (zeina haurrei egozten zaien makurra baita). Jordi Évolek inork baino hobeki laburbildu zuen txio olinpiar batean: “Hau desastrea! Zeinen gaizki, dena”.

Évole bera etorri zaigu bertze behin azaltzera mintzatuz gero *hau guzia* konpon dezakegula. Aldez aurretik, jakina, independentistek egindakoarengatik damua agertu eta onartu behar dute *honek guziak* ez duela deusetarako balio izan. Horren trukean, nagusi den ezker tolerantia *politikari presoak* askatzearen alde azalduko da.

Bertze egun baterako geldituko da galdegitea hainbat katalanek –urriaren 1ean zafratuak izan ondotik eta auzo nazioko erregeak eta herriak aho batez “*a por ellos*” kantatu ondotik–, noizbait lortuko duten ez eroso sentitzea, baizik eta irenstea Estatu horren pean segitu behar dutela bizitzen.

Mintzatuz gero, hau guzia konpon dezakegu. Norekin, baina? ■

EZ HANKA EZ BURU!



EGUZKIRA BEGIRA,
AIZO GORRIZ BRODATU ZENUEN
ATORRA BERRIAREKIN...!



ADUR

ANALISIA



EAJko EBBko Andoni Ortuzar presidentea 2018ko Alderdi Egunean.

EAJ da egun Marxekiko fidelena



Mikel Asurmendi
@masurmendi

Mundua krisian dago. Ipar mendebaldeko herrialde garatuetako munduaz ari naiz. Gaur egun baina, gure munduak mundu osoa hartzen du bere mendean. Ni jaio nintzenean, gure mundua ere krisian zegoen. Bi mundu nagusi ziren: komunista eta kapitalista. Beranduago beste bi mundu ere bazirela ikasi genuen: iparralde aberatsa eta hegoalde pobrea.

Hain juxtu ere, ni jaio nintzenean ere krisian ginen, pobreak omen ginen, hala ere, eskolan, pezeta bat eskatzen ziguten txinatarrentzat. Itsulapikoak halaxe zioen: *Una peseta para los chinitos*.

Egun, funtsean, mundu bakarra dago, mundu globalizatuan bizi baikara. Eta jaio nintzenean bezala, gaur ere mundu osoa krisian omen dago.

Orain arte idatzitakoari *txinatar ipuina* tankera hartu diot: *cuento chino*.

Edonola den ere, munduak krisian segitzen du. Ezkerreko eredu, anticolonialista eta iraultzailea agortu da. Eskuinekoa, berriz, sozial-demokrata eta erreformista, blokeatuta dago. Horrek politikan jarduteko molde berriei leku eman digu herritarroi. Adituen erranetan, paradigma politiko berri baten garaian gaude. Mugimendu alternatiboak dira gizartean eragiteko eredu berriak.

Mundua handia da, beraz, gatozen Euskal Herrira. Mugimendu alternatiboko militante eta pentsalari Txomin Povedaren erranetan “ez da aski instituzioetan irabazle izatea zure borroka aitzina eraman ahal izateko”. Ados. Paradigma politiko berrien garai honetan, ordea, badago paradoxikoak egiten zaizkidan adierazle bi:

– Ni jaio nintzenean, Karl Marx zen mundu kapitalista zapaltzailearen aurka borrokatzen zuten alderdietako burtsamenduaren ideologoa. Egun, berriz, kapitalismo neoliberalaren aurka borrokatzen dugu. Orduko sistema eta egungoa antzekoak dira, diferentzia batez: guk geuk esplotatzen dugu geure burua.

– Euskal Herrian, EAJ gailentzen da instituzioetan alde edo moldez. EAEn ez bairik gabe. Nafarroan ez, baina funtsean, abertzaleen artean gutxiengoa izanik ere, bera da Nafarroako instituzio nagusiko politikari, zuzen edo zeharka, etekin gehien ateratzen diona. Ipar Euskal Herrian, abertzaletasunean EAJ gutxiengoa da. Euskal Elkargoa sortu berri da, eta bera begitantzen zait etorkizunean botere-gune horretatik atarramendu handiena aterako duena. EAJ da egun Marxen jarraitzaile fidelena. Ez naiz Karli buruz ari, bistan da, Grouchoz baizik. Honela zioen Marxek: “Hauek dira nire printzipioak. Ez bazaizkizu gustatzen, beste batzuk ditut”. ■

EKONOMIAREN TALAIAN

Bankuek gobernatzen dute



Juan Mari Arregi

Espainiako Auzitegi Gorenak hipoteken zergen inguruan azaroaren 5ean hartzen duen erabakia hartzen duela ere, jadanik ikusi dugu Espainiako Estatuan bankuek gobernatzen dutela, hau da, kapitalak. Gorenak ebatzi zuen bankuek ordaindu behar dutela –eta ez bezeroek– notario aurrean hipoteka bat eskrituratzen denean ezartzen den zerga. Epaia behar handiak ekarri zizkien burtsara bankuei. 24 orduren bueltan berriz ere gorantz kotizatzen ari ziren ordea... Arrazoa? Salako presidentek pleno bat deitu zuen Gorenaren beraren irizpidea errebisatzeko, esanez sententziak ondorio ekonomiko handiak ekarriko zituela bankuentzat, burtsan hondoratzea alegia.

Beraz, Auzitegi Gorenak bankuentzat kaltegarria den epaia ebatzen du; hauek erreaktionatu eta lortzen dute epaia gelditzea eta epaimahaia- ren pleno bat eragitea haientzat hobea baina bezeroentzat kaltegarriagoa den egoerara itzultzeko. Burtsak, pozarren, erreaktionatu eta bankuen akzioek gorantz egiten dute berriz ere. Gorenak beste pleno bat deitu du azaroaren 5erako, erabakitzeko bankuek edo bezeroek ordaindu behar ote duten zerga hori.

Jadanik berdin du azaroaren 5ean zer erabakiko duten. Bankuek euren boterea zein den erakutsi dute. Ez dute ezertxo ere galduko hipotekari ezarritako zergarengatik; modu batean edo bestean, bezeroa egin beharko da horren kargu. Bankuei zerga endosatzen badiote, ez du atzera eraginik izango eta bezeroari ordainaraziko diote komisioen eta antzeko neurrien bidez. Bankuek, kapitalak, beti irabazten dute, gai dirrelako beren irizpideak epaimahaia- ri eta gobernuari inposatzeko. Auzitegi Gorenaren epaia geldiarazita, nolako boterea duten ikusi dugu, be- raiek gobernatzen dute.



ECUADOR ETXEA

Euskal Herri feminista irudikatu dute Bilbon

BILBO. 36 herrialdetako emakume* ordezkariek Bilbon hartu dute tokia urriaren 22tik 28ra, Emakumeon Mundu Martxaren XI. Nazioarteko Topaketaren bueltan. "Batu indarrak, urrutira goaz! Gure gorpuzten eta lurraldeen burujabetzara!" lelopean, eraldaketarako alternatiba feministak izan dituzte ardatz. Testuinguru horretan, Feministon Herria burutu dute, egun batez Bilboko Areatza Euskal Herri feminista baten ispilu bilakatuz. Argazkian, Emakumeon Mundu Martxako Nazioarteko Komite eratu berria.

"PPren amarru legala ontzat eman du Europak"

Argia

Presoek Frantziako Estatuan dagoeneko egin duten kartzelaldia Espainiako Estatuak aintzat ez hartzea ontzat eman du Europako Giza Eskubideen Auzitegiak. Euskal presoek abokatu Iker Urbina eta Haizea Ziluagak harrিতuta jaso dute berria, besteak beste Espainiako instantzia judizialean ere iritzi ezberdinak zeudelako.

Ad hoc

PPk 2014an egindako amarru legala ontzat ematea deitoratu dute abokatuek. Beren usuez, 2014an egindakoa Europaren irizpideen aurkakoa izan zen eta *ad hoc* egindakoa, alegia euskal presoek kartzelaldiak luzatzeko asmoz egindakoa.

Harrিতuta

Bestelako ebazpena espero zuten abokatuek, ikuspegi juridikotik uste sendoak zituztelako, eta Espainian boto partikular oso sendoak zeudelako. 7/2014 legea berritu eta Europako filosofiaren irizpideetara moldatzeko eskatu dute.

Aukerak

Estrasburgoko Aretoko Nagusira jotzeko aukera aztertuko dute orain. Hiru hilabete dute horretarako. Beste aukera Luxenburgoko Justizia Auzitegira jotzea da, baina aukera hori ez dago presoek esku, EBren eta instantzia judizialen esku baizik.

EUSKARA



86

udalerritako osasun arloko 616 langile aztertu ditu UEMAK. Emaizta: osasungintzako profesionalen hamarretik bik ez daki euskaraz EAEn (%21,6k ez du hizkuntza eskakizunik), eta Nafarroan ia hamarretik zazpik ez daki (%68ak). Orain bi urteko datuekin alderatuta ez dago hobekuntza nabarmenik.



PLASTIKOA

Babesturiko gunea den Zumaiaiko Flysch-aren egoera tamalgarrria salatu du Oier Bartolome surflariak, sare sozialetan asko zabaldu den bideo batean. Kolore eta tamaina anitzeko plastikoz inguratutik ageri da gunea.



IRAULKETA BRASILEN

Jair Bolsonaro ultraeskuindarra nagusitu da Brasilgo presidentetzarako hauteskundeetan. Bere alderdiak botoen %55,41 lortu du bigarren itzulian eta Langileen Alderdioko Fernando Haddadek %44,84. "Komunismoarekin zerikusia" duen guztia baztertuko duela adierazi du lehen agerraldian.



INGURUMENA

Renania eskualdeko (Alemania) lignitio meategira hornigaiak eramaten dituen trenbidea moztuta izan dute pare bat egunez 6.500 bat lagunek, ekintza desobedientean.

Noam Chomsky: Brasilgo kolpe ezti batek uhinak zabalduko ditu munduan



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Igandean, 28, lehiatu dira Brasilgo nagusi izan nahian. Jair Bolsonaro, "Brasil eta Jainkoa orenen gaineratik", versus Fernando Haddad, "Herria zoriontsu berriro". Bolsonaro armadako jeneral bat zeraman bigarren, Haddadek preso dagoen eta preso hil litekeen Lula da Silva mitikoaren itzala. 2007ko krisitzarrak ez dizkie oraindik azaldu ondorio guztiak mundu osotik Brasilera harrituta begira dauden adituei. Noam Chomskyren analisi zuhurra laburbilduko dugu hemen.

Honela mintzatu zitzaizen Jair Bolsonaro urriaren 21ean bere alde bildutako milaka herritarrei: "Gu gara benetako Brasil. Haiek galdu egin zuten atzo, galdu egin zuten 2015ean eta berriro galduko dute. Baina datorren garbiketa askoz sakonagoa izanen da. Zabor gorri horiek kanporatuko ditugu gure aberritik. Brasil ez da gehiago izango ikurrin gorria eta burmuin doktrinatu daramaten banda horrena. Lula da Silva, espero baldin baduzu Haddad lehendakari bihurtu eta zu indultatzea, hau esango dizut: espetxean ustelduko zara. Uste al duzue dena bukatu dela? Brasilek bere historian ikusi ez bezalako garbiketa izanen da. Polizia zibil eta militarra ikusiko duzue eta [gorri] bizkarra hausteko armategi jurikoa. MST Lurrik Gabekoen Mugimenduko gaizkileak, MTST Etxerik Gabeko Langileen Mugimenduko alprojak: zuen ekintzak terrorismotzat joko ditugu. Ez duzue gehiago beldurrik sartuko ez baserrietan eta ez hirietan". 7 minutuko hitzalditik hautatutako esaldiak dira.

Lula lepatu osteko Brasilen urteotako bilakaera ulertu-azaldu nahian plaza-ratutako zientzian artetik bat hautatu behar eta, baliogabetzen ez den txanponetik jo dugu: Noam Chomsky (AEBak, 1928).

Euskarazko Wikipediak "hizkuntzalari, filosofoa, zientzialari kognitiboa eta aktibista" laburbiltzen duen Chomsky erraldoiak eta bere emazte Valeriak bisitatu berri dute Lula Curitibako espe-

txean, ondoren argitaratzeko: "*Munduko preso politiko famatuena bisitatu dut, Lula. Brasilgo estatu kolpe 'ezti' batek mundu osoan eraginen du*". Hemendik aurrerakoa, Chomskyren *The Intercept*-eko artikulua paragrafo hautatuak, hitzez hitz batzuk, laburtuak besteak.

Luiz Inácio Lula da Silva hil arteraino gerta dakioken kartzelaldian dago, isolatua, prentsa eskuratzeko eskubiderik gabe, asteroko bisita bakar batekin. Antzera bizirautera kondenatu zuen Mussolinik Antonio Gramsci 1926an, fiskalaren hitzok bitarteko: "Bere burmuinari lan egitea eragotzi behar diogu datozen 20 urteetan".

Lula izango zen egunotan ere hautagirik popularrena, hauteskunde justu zuzen batzuetan erraz irabaziko zuen, baina ez da plutokraziak hautatu duena. Agindu zuenean bere politikak Brasilgo eta nazioarteko finantzen nahietara egokitu zituen arren, eliteek mesprextatzen dute, hein batean bere politikenatik eta txiroentzako laguntzengatik, baina baita klase gorroto hutsagatik ere: nola utziko diogu gure herrialdearen buru izaten langile pobre bati, goi mailako ikasketarik ez eta portugesa txukun hitz egitera iristen ez den bati?

Bolsonaro, aldiz, argi eta garbi azaltzen da diktadura militarren miresle, ordena berriro ezartzeko prest. Ageritzen da *establishment* usteldua -hainbeste brasildarrek gorrotatzen dutena- eraitsiko duen gizon berria bailitzan.



Aurreko belaunaldien eraso neoliberalen kontrako erreakzioa da, munduko beste leku askotan bezala. Eta zer egingo du agintea eskuratutakoan?

Bolsonaroren buru ekonomikoa den Paolo Guedesek disimulurik gabe iragarri du: soluzioa "dena pribatizatzea" da, Brasilgo azpiegiturak oro, zor publiko ordaintzeko. Den-dena, herrialdea bankuen eta aberatsen jostailu izate-raino. Guedesek badaki zertaz ari den, Pinocheten garaiko Txilen lanean aritua da urte batzuetan, Chicagoko eskola neoliberalaren ikasle -*Chicago boy*- bizkorra izaki.

Pinochet ez dabil urruti

Gogoratu behar da -beti Chomsky da mintzo- Chicagoko neoliberalismoak Txilen eragindakoa. 1973ko kolpe militarrek ireki zion bidea oposizioko kideei tortura eta izua ezarri. Chicagoko ekonomialari izarrek gainbegiratu zuten esperientzia, AEBen laguntzarekin eta nazioarteko negozio eta finantza-erakundeekin. Esperientzia asko txalotu zuten hasieran; gero isiltasuna.

1982rako *Chicago boy*-ek Txileko ekonomia erreforma eramana zuten eta Estatuak hartu behar izan zuen bere gain ekonomiaren zati handi bat, Allenderen garaian baino handiagoa. Ekonomiak burua jaso duenean ere, nabarmen nozitzen ditu hondamendiaren ondorioak, osasungintza, hezkuntza eta abarretan.

Brasilera itzulita, oso kontutan hartu behar da finantzen sektoreak eko-



“Todo Noticias” argentinarraren webgunetik hartutako argazkian, Jair Bolsonaro Lula presidente ohia preso irudikatzen duen panpinarekin jolasean bere jarraitzaileen aitzinean Brasilian hauteskunde kanpainako mitinean, Latino Amerikako gobernu aurrerakoien heriotza irudikatzen. Bere burua “establishment”-aren etsaitzat erakusten duen Bolsonaro militar ohia 1991tik dago Brasilgo parlamentuan.

nomian daukan nagusitasuna. Ladislau Dowor ekonomialariaren arabera (*A era do capital improdutivo*), Brasil 2014an atzeraldian sartu zenetik banku handiek irabazkiak %25-%30 handitu dituzte: zenbat eta bankuen etekin handiagoak, orduan eta ekonomia makalago, “finantza-bitartekariak ez dute produkzioa elikatzen, zigortu baizik”. Horrek ito arazten du Brasilgo ekonomia atzeraldian, ez gastu sozialen handiak edo ustelkeriak.

Joseph Stiglitzek dio fenomeno mundu osokoa dela, bankuek lehen dirua txertatzen zieten enpresei, gaur kendu baizik ez diete egiten. Horra neoliberalen urteotako erasoak politika sozio-ekonomikoa nola eraldatu duen: aberastasuna izugarri kontzentratzen da gutxi batzuen eskuetan eta, aldiz, gehiengoa blokeatuta dago, pres-

tazio sozialak murrizten dira eta demokraziaren funtzionamendua ahultzen, botere ekonomikoa gero eta kontzentratua dagoela, finantza-erakunde predatzaileen atzaparretan.

Horrek elikatzen ditu munduaren zati handi bateko gobernuetik jendeak daukan erresumina, haserrea eta mesprezua, sarritan –“oker”, azpimarratzen du Chomskyk- populismoa deitua.

Atzeraldi ekonomikoetan, lehenago ere Brasilen estatu kolpeak ekarri izan dituzte –AEBen esku hartzeekin- instituzioen auzitan jartze atzerakoiek eta 2013tik han bizi dena *estatu kolpe ez* deitzeko arrazoirik ez da falta. Finantzen alorrean zentratutako elite zaharrek hedabideen kontzentrazio handiaren laguntzarekin kanpainari ekin zioten Rousseff saiatu zenean interes tasa izugarri altuak maila apalagoetara

mugatzen, gauza arriskutsua finantzen merkatuetan jokatzen zuten gutxientzako.

2018ko kanpainan etengabe aipatu da ustelkeria, PT Langileen Alderdi Lularenak ere hartu baitu parte horretan. Benetan gertatu da ustelkeria, baina PT infernuko demoniotzat erabiltze hori instrumentalizazio hutsa da. Agertu den ustelkeria ez da icebergaren pikoak baizik, ustelkeria gehiena legezkoa delako, eta handiena multinazionalak herrialde garatuetatik egiten dutena.

Curitiban daukate isolaturik munduko preso politiko famatuena *estatu kolpe ez*ta burutu ahal izateko eta honek ondorio larriak ekarriko dizkio bai Brasilgo gizarteari eta bai munduko beste toki askotakoei. Uhin beltzari hesia jartzeko indarrak inork bildu ote duen, dagoeneko irakurleak jakingo du. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



50 urtez elkarrekin

«Katedradun izateko babesak izan nuen, baina ez gizonezko gehiengoarena»

Maria-Jose Azurmendi

Unibertsitate katedradun euskararen militantea

Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria irabazi du aurten. Linguistika, soziolinguistika eta, are, psikosoziolinguistikatik joko genuelakoan geunden, baina ARGIAtik joanda, *Zeruko Argia*-ren garaietara joan gara ihesi memoriaren bide asmaezinetan barna, iraganetik orainera eginez, gidari aparta lagun.

Testua: Miel A. Elustondo

Argazkiak: Dani Blanco

[Galdezka hasi aurretik ekin dio berak]... *Zeruko Argia* zen garai batean. Gure amak beti hartu izan zuen, eta beraren bidez ohitu nintzen zuen aldizkaria irakurtzera. Nik esango nuke joan den mendeko 50eko hamarkadaz gero, etxean dugula astekaria. Lehen, *Zeruko Argia*; orain, ARGIA. Aitak lana besterik ez zuen egiten, eta amak kontatzen zizkigun irakurtzen zituenak. Bixenta Aierbe zen gure ama, Segurakoa, 16 urterekin Donostiara etorria, Intxaustitarren etxera, sukaldeko lanean, josten eta brodatzen... Filipinetan jaioa zen Manuel Intxausti [Manila, 1900–Uztaritze, 1961], eta 1936ko gerra ondoren gogotik lagundu zien Ipar Euskal Herriara ihesi joan ziren abertzaleei, haurrei, Jaurlearitzari, eta Jose Antonio Agirrerri berari. Zenbat diru eman ote zuten!

Eta zuen ama haien etxean izan zen lanean.

Bai, Donostian, Ondarretan zeukaten etxea. Han dago etxea oraindik. Lehen, Intxausti zen. Orain beste izen bat dauka. Etxe hartan ezagutu zuten elkar gure gurasoek. Aita, etxeko txoferra zen. Gerra hasi zenean, Uztaritzera joan ziren, eta gerora, behin baino gehiagotan izan nintzen etxe hartan, gurasoekin joanda. Eta, beti, euskarazko ipuin bat erregalatzeguzen. Jende berezia zen, oso.

Ondarretan Intxaustitarren etxea, Antiguaz bizi zirenen zuen ere.

Bai... Eta, txikitik, hantxe hasi nintzen lehenengo eskolara, 4-5 urterekin, Jesusen Mirabeetan. Ez zegoen euskaraz hitz egiterik, baina nik ez nekien gaztelaniaz. Galdetzen zidaten, ulertzen nuen

Maria-Jose Azurmendi Aierbe

1944, Donostia

Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria 2018. Irakasle eta ikerlaria. Filologia Erromanikoa ikasketak Madrilan egina, Beasaingo Lizeoko zuzendari zen 1968an. Ondoren, Deustuko Unibertsitatearen Donostiako EUTGn jardun zuen irakasle. 1983an EHUko Psikologia fakultatean hasi zen, 2011n erretiratu zen arte. Emakume aitzindari izan da ikastolako zuzendarietan, euskara dekanordeetan, katedradunetan eta Psikosoziolinguistikan. Donostiako Bagera Euskara Elkartearen omenaldia jasoa. ARGIA *Zeruko Argia* zen garaitik etxean pozik jasotzen duen MariaJose Azurmendiri, gure merezimendua.



nolabait, baina ez nintzen erantzuteko gauza. Garai hartan, arbelak ez zeuden paretan itsatsita, bi alde zituzten, bata gelara begira, bestea atzeko paretaren aldera. Bada, ni, arbelaren beste aldean jartzen ninduten. Han, klariona hartu eta marrazkiak egiten nituen, eta marrazkiak egitera zaletu nintzen. Oraindik ere egiten ditut.

[Egiazko margolanak egiten ditu gaur egun] Asko sufritu nuen, eta amorrua ere etorri zitzaidan. Gainera, euskaraz hitz egiteko beldurrez bizi ginen, ez genuen hitz egiten... Jesusen Bihotza ikastetxean hasi nintzen gero, eta han ere isildu egiten zen euskaraz zekien jendea. Ikasturtea pasatu arte ez nuen jakin batzuek euskaraz egiten zutela. Orduan, isilka, gure artean euskaraz egiten hasi ginen, mojen ezkutuan.

Lanak ditu sinesteak.

Eta orain ere, orduko hura bizi izan zuen jendeak, bizi izan ez balu bezala egiten du. "Babesgabetsun ikasia" du izena horrek psikologia sozialean. Babesgabetsun ikasia. "Esan duzuna ez da egia! Hemen ez zegoen debekurik!", esaten dute. Onartu egin dute gezurra. Gauzak asmatzen ditugulakoan bizi dira. Askotan, gerra erabili beharrean, inperioek bestelako mekanismoak erabili dituzte jendearen barruan halako sineste jakin batzuk, eta ez beste batzuk, sartzeko. Jendeari pentsamendua aldarazten diote. Lehenengoan, jendeak kontra egingo du, baina, poliki-poliki, onartu egiten du.

Amorrua aipatu duzu lehen.

Baina amorruak ez du betiko irauten, zorionez. Bizian bestelako etapak ere izan ditut. Esate baterako, Madriler Filologia Erromanikoa espezialitate egitera joan nintzen garaia. Hantxe sendotu zitzaizkidan euskara eta euskaltasuna. Euskaldun talde handia zegoen han, euskararen aldekoa. Zioten euskara zela gure hizkuntza, euskaraz hitz egin behar genuela, eta euskara eskolak antolatu zituzten. Batzuek besteei erakusten genien. Alde batetik, eskolak jasotzen nituen, irakurtzen eta idazten ikasteko; bestetik, eskolak ematen nizekien ni baino gutxiago zekitenei. Adibidez, nire senarrari.

1963an joan zinen Madriler, Euskal Herrian bertako unibertsitatearik ez zegoen sasoian.

Esfortzua

"Euskaraz hitz egiteko esfortzua egin behar izaten dute batzuek. Nik, gaztelaniaz hitz egiteko egin behar izaten dut, eta frantsesez edo ingelesez egiteko ere bai. Ikasketak gaztelaniaz egin ditut txikitatik, eta horiek euskarara ekartzeko esfortzua egin behar izan dut. Nola esango nizuke, bada?"

Euskara batua

"Jakin genuen Euskaltzaindiak Arantzazun egindako bileran eztabaida izan zela, batzuk alde, beste batzuk kontra, baina nik erabakita neukan Euskaltzaindiak erabakiko zuena onartuko nuela, aurrera egingo nuela. Eta bide horretan saiatu nintzen Beasaingo Lizeoan zuzendari izan nintzen garaian".

Eta kanpora joan behar estudiantu nahi izatekotan. Asko ginen han euskaldunak, berrehunen bat, gizonezkoak gehienak. Emakumezkoak, hamarren bat edo. Amak bultzatuta joan nintzen, amari Intxaustitarren etxeko giroak eraginda. Ikasi egin behar nuen, eta asko ikasi nuen Madrilen. Filologia ikasi nuen, baina, tartean, historia, literatura, ekonomia... eta beste hainbat eskola eta saiotara joaten nintzen, entzule. Jakin-min handikoa nintzen. Eta nik bezala egiten zuten beste batzuek ere. Lehen bi urteak Donostian egin, espezialitateko hirurak eta beste bat, doktoregoa egiteko, eta Euskal Herrira etorri nintzen. Madrilen bertan unibertsitate-irakasle lana eskaini zidaten, baina nik hona nahi nuen...

Madrilen lau urte eginda. Eta, hemen, egin zenuten Euskal Herri berririk?

Saiatu ginen. Beasaingo Lizeoko lehen zuzendaria izan nintzen. Euskaraz zelako hartu nuen lan hura. Ez naiz gogoratzen nor eta nola etorri zitzaizkidan bila, baina Madrilen nengoenean,

Donostiara etortzen nintzen udan, eta hemengo mugimendurekin bat egin nuen, Karmele Esnalekin eta. Garai hartan, ikastolak irekitzen hasita zeuden, eta irakasle tituludunak behar zituzten. Zuzendari egin ninduten. Eskolak nola eman, ikastola bera nola antolatu, irakasleak kontratatu... Eta hortxe izan nuen borroka, batzuek esaten zutelako irakasle izateko titulurik ez zela behar.

Irakasle tituludunak izatea auzitan zegoen?

Bai. Eta borroka handia izan zen, hirugarren urtean, batez ere, esanez irakasleak tituluaren arabera kontratatzen nituela. Baina ni ere titulua nuelako hartu ninduten. Sistemaren kontrako asko gertatu ziren garai hartan, errebeldia zen: "Espainiako titulua, euskaraz irakasteko? Ez, jauna!"... Ni, hala ere, irakasle tituludunak ekartzen saiatu nintzen beti, bota ninduten arte.

Bota egin zintuzten?

Bai. Eskutitza bidali zidaten, gaztelaniaz. "Por incompatibilidad con el resto de profesores" (Gainerako irakasleekiko bateraezintasuna), zioten. Tituludun batzuk kontratatzea lortu nuen, baina han gehiago ziren titulurik ez zutenak. Bota ninduten, eta badut arantza: ikastola, euskarak indar handia duen tokia, Goierri... Oso maitea izan dut beti Goierri, ama Segurakoa eta aita Legorretakoa izanda! Memoria galtzen hasita nago, baina "Por incompatibilidad con el resto de profesores", ez zait behin ere ahaztuko. Izugarritzko negarrak egin nituen, asko tristetu nintzen. Baina jesuiten unibertsitatean [Deustuko unibertsitate Donostian, EUTG garai batean] ezagutzen ninduten, zenbait eskola ere emanda nengoan Beasainen izan nintzen azken urtean, eta unibertsitatean hasi nintzen berehala.

Hamahiru urtez Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusean jardun ondoren, Euskal Herriko Unibertsitate hasiberriko Psikologia fakultatean zinen lanean. Elebitasuna izan duzu ikergai nagusietarik. Eleaniztasunaz ari gara gaur egun.

Elebidun nahiz eleaniztun izan gintezke gu, norbanakoak, baina gizartea, ez. 1980an Quebecen izan nintzen, Laval Unibertsitatean, William MacKeyrekin, [nazioarteko soziolinguistikaren sona handienekoa duen pertsona] eta horixe



esaten zuen berak. Gizarte mailako elebitasuna posible izatekotan, hizkuntza bakoitzak bere lurralde eremua behar du, eta lurralde eremu horretan hizkuntza ofizial bakarria izan. Ez dago besterik. Kanadan, frankofonoak dituzu batean, anglofonoak bestean. Horrelaxe funtzionatzen zuten, eta funtzionatzen dute, estatu konfederatuak balira bezala. Euskal Herrira etorri eta MacKey harritura zegoen, hain zapalduta egonda ere, euskarak gure artean zuen indarra ikusita. Munduan horrelakorik ez zuela inon ikusi zioen. Eta kontuan hartu gurea oso egoera nekeza dela, hiru lurralde administratibotan zatituta, bi estatutan, bi hizkuntza hegemoniko ditugula gure gainean... Egin kontu, frantsesa benetako hizkuntza globala izan zen Lehen Mundu Gerra baino lehen. MacKey garbi esaten zuen, gizarte mailako elebitasun orekatuak ez dugu inoiz ezagutu, hizkuntza batek bere lurralde jakina behar du. Pertsonok bai, jakin ditzakegu hizkuntza bat, eta bi, eta hiru, eta asko, baina lurralde zehatz batek hizkuntza zehatz bat behar du. Gizarteak bakarrarekin funtzionatuko du, ez birekin.

MacKey ez ezik, beste soziolinguista handi bat ere hartu zenuten etxean: Joshua Fishman.

Bai. Bizpahiru aldiz izan genuen hura ere. Mundu mailako adituak biak, euskararen prozesuaz kezkatuak biak. Jakinda ze gutxi ginen, nola geunden zatituta, nola gerra galdu genuen... eta, hala ere, zer indar genuen pizteko, edo berpizteko, bai gure hizkuntza, eta bai herria bera ere.

Piztu, ez piztu, euskaraz badakigu, asko. Dakigunok baino askoz gutxiagok hitz egiten dugu euskaraz.

Garai batean izan genuen Donostian kanpaina bat, "lehenengo hitza euskaraz". Orain ere martxan jarri beharko genuke. Dendara joan, eta gaztelaniaz. Zergatik, ordea? Baliteke aurrean dugun dendariak euskaraz jakitea. Orain dela urte batzuk egiten nuen, Parte Zaharrean joan, tabernara sartu eta euskaraz eskatu. Euskaraz erantzuten ez bazuten, agur!, beste batera joaten nintzen.

Militantea, gero!

Eta gero eta euskaldun gutxiago dago Donostiako Parte Zaharreko tabernetan ere. Garai batean, Parte zaharrean joan eta jan, edan, hitz egin, kantatu... dena egiten genuen. Orain, ez. Lehenengo hitza euskaraz egin behar dugu, leku gutxietan euskaraz dakien bat jarri behar dute; bat, gutxienez.

Militantzia aipatu dut, Manuel Lekuona saria eman dizutelarik, ibilbide akademiko eta militantean euskara erdigunean jarri duen zientzialaria zarela esan dutelako.

Euskara dekanorde izan nintzen Psikologia Fakultatean, eta unibertsitateko campuseko beste fakultatetan ere euskara dekanordeak jartzen saiatu nintzen, euskararen ardura har zezaten. Eta lortu genuen. Eta hizkuntzaren normalizazioan saiatu ginen. 80ko hamarkadan, adibidez, hiztegi teknikoak landu genuen, erabiltzen genituen espainierazko terminoak zerrendatu, euskaraz nola esan pentsatu, eta proposamena bidali genion Euskaltzaindiari, aholku eske. Hasieran oso gauza nekeza zen. Dekanoa euskalduna bazen ere, ez zuen euskararekiko sentsibilitate handirik, "babesgabetasun ikasia" zen harena ere. Ez zuen alde egiten, baina ez zen kontra egitera ausartzen ere. Eragozpenak eta trabak asmatzen zituen. Orain unibertsitatean euskaraz egiten den lanak, euskararen egoerak, ez du zerikusirik garai batekoarekin. Zorionez.

Zure aitzindari izaera goraiatu du Eusko Ikaskuntzak. Besteak beste, unibertsitatean katedradun izatera iritsi den lehen emakumeetarik bat zarelako. Emakume izatea lagungarri izan duzu, traba?

Lagundu ez, traba izan dut! Nire garaian gizonetzkoak ziren denak, gehienak, unibertsitatean. Dena nekezagoa zen guretzat. Katedraduna naizela esan duzu, eta egia da, baina garai hartan gizonetzkoek zuten lehentasuna, katedradun izendatuak izateko ere. Gure fakultatean, hirugarren katedraduna izan nintzen. Lehen biak, gizonetzkoak izan ziren. Hirugarrena ere gizonetzkoa nahi zuten. Neu izan naiz Psikologia fakultateko lehenbiziko katedradun emakumezkoa. Katedradun izateko babesa izan nuen, baina ez gizonetzko gehiengoarena. Hala ere, curriculum handiena eta hobea nuen. Egoera hori ere bizi izan dut.

Manuel Lekuona sariak garrantzak gozatuko ahal dizkizu!

Senarra eta seme-alabak ditut, eta bilobak, eta eskerrak haiei. Haiek nire alde egin izan ez balute, ondoan eduki ez banitu niri laguntzen, ez nukeen aurrera egiten asmatuko. Edo erdirik ere ez nukeen egingo. ■



Azken hitza lehen: ARGIA

“Lehenik, ARGIAri eskerrak ematea dut. 1919an hasi eta orain arte egin duzuen lana miresgarria da. ‘Kazetaritza independentea. Informazioaren jabekuntza. Inongo partidu politikoren menpean egon gabe. Informazioa, bertakoa eta mundukoa’. Irakurleek ere esaten dute: ‘Beti euskararen eta euskal kulturaren alde’. Gainera, astekaria!... Nola ez dugu, bada, ARGIArekin bat eginda segituko!”.

Hemen da Wolfram Deuna!

ZER

Umorezko zientzia-hitzaldiak,
dosi homeopaticoetan

NOIZ

Azaroaren 7an, 19:30ean,
Bergarako ZTB jardunaldien
barruan

NON

Seminarixoan, Bergara


GAINERA

Laboratoriumera bisita
gidatua, 18:30ean, doan!

Antolatzailea

elhuyar
ezagutuz aldatzea

Laguntzaileak



LABORATORIUM



Maitasun gaindosia

Sirenatxoa eta Ederra eta Piztia ziren txikitan nire pelikula kuttunenak. *Sirenatxoa*-k bere ahotsa entregatzen du, printze urdinarekin ezkontzeko promesaren truke. Piztia otzantzea eta barruan daraman printze urdina berpiztea lortzen du *Ederra*-k, maitasuna oztzopoen gaintetik gailentzen baita.

(Oharra: *Domesticar* hitza *Elhuyar*-ren bilatu dut. Ba al dakizue zein den hiztegi honek ematen duen adibidea? “Izaera gogorreko gizona zen arren bere emazteak pixkanaka otzandu du”).

Sirenatxoa-k irakatsi zigun amodioaren promesarengatik edozein sakrifizio egiteko prest egon behar dugula. *Ederra*-k (eta *Elhuyar*-rek), gure gizona baretzeko gai izan behar dugula. Lotura argia dago emakumeok txikitan jaso genuen heziketa sentimental tamalgarriaren eta indarkeria matxistaren mekanismoen artean.

Feminismora hurbildu garenean, ikasi dugu –Kate Milletek esan bezala– maitasuna emakumeen opioa dela eta aske izateko printze urdina akabatu behar dugula. Atzera begira egin eta konturatu gara nerabezaroan ordu gehiegi eman dugula mutileri buruz berbetan, sasi-mutilagunaren desgainuengatik negar egiten, bere deia itxaroten. Eta hazi ahala, lehenengo harreman “serioak” izan ditugunean, bikote harremana lehenesteagatik proiektu gehiegiri uko egin diogula eta piztiaren oldarraldi edota ozarkeria gehiegi jasan dugula.

Hortaz, maitasun erromantikoaren ideologia deseraiki behar dugula ulertu dugu, dinamika horietan berriro ere ez erortzeko –edo lesbianismora jo dugunon kasuan, *bolldramen* dinamiketan–. Eta orduan hasi gara hamaika liburu



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Feminismora hurbildu garenean, ikasi dugu –Kate Milletek esan bezala– maitasuna emakumeen opioa dela eta aske izateko printze urdina akabatu behar dugula. (...) Gaur epifania bat izan dut: maitasunari buruz horrenbeste hausnartzea ez da irtenbidea, tranpa baizik

irakurtzen, hamaika hitzalditara joaten, Coral Herrera Gomézen online ikastaroak egiten.

Gaur epifania bat izan dut: maitasunari buruz horrenbeste hausnartzea ez da irtenbidea, tranpa baizik.

Epifania hori garatzeko, Maite Asensio Mari Luz Esteban antropologoari aspaldi egindako elkarrizketa berri-rakurri dut: “Emakume egiten gaituen

zerbait badago, gure erdigunean maitasuna egon beharra da, gure bizitzako ardatz nagusia izan beharra. Horregatik uste dut maitasuna gure erdigunetik kendu behar dugula. Maitasuna erdigunetik kenduz gure emakume identitatea nahitaez eraldatuko da”. (...) “Ez dut esan nahi maitasuna bizitzatik kendu, baizik eta beste gauza batzuk jarri, orekatu. (...) Uste dut askatasuna oso inportantea dela, justizia, elkartasuna... Maitasun mota ezberdinak maila berean jarri behar ditugu; ildo horretan, kezkatuta nago adiskidetasunak ez daukalako merezi duen leku teoriko eta politikoa, praktikan garrantzia handia izan arren”.

Pikara magazineko ibilbidean, artikulua irakurrienen artean, gehienak maitasunari buruzkoak dira. ARGIA n idatzi ditudan zutabeen artean, mandarinak izan zuen oihartzun gehien (laranja erdiaren paradigmaren alternatibari buruzkoa). Nire hiriko liburu-denda feminista batek maitasunari buruzko irakurketa klub bat iragarri du eta argitu du arlo literarioa ez dutela aztertuko, amodioaz debatzera mugatuko direla. Zergatik ez dugu irakurketa klub bat antolatzen adiskidetasunari buruz hitz egiteko? Aurtengo *Zinemakumeak* jaialdiak ere maitasun erromantikoa izan du ardatz. Bolsonaro, Salvini, Trump eta Casadoren botere garai honetan, zenbat ari gara maitasunari buruz espazio publikoan debatitzen eta zenbat eskuin-muturraren berrindartzeari buruz?

Kontraesana da maitasun erromantikoa gure bizitzaren erdigunetik kentzeko, gure hausnarketa feministen erdigunean mantentzea. Has gaitezen energia hori guztia beste lehentasun politikoetara bideratzen. ■

Hiletak eta garapena

Ni hiltzen naizenean, ez ehorts elizan kantu zaharrak garapena izan du: Donostiako Udala areto apropos bila dabil, herritarrek hileta laikoak antola ahal ditzaten. Ongi iruditzen zait, kristaua naizen aldetik ere. Bakoitzak bere hilak egokien deritzon eran agurtzeko modua izatea elkarbizitza mailaren neurri ona da eta.

Hobe legoke kristau komunitateek euren elizak zabalduko balituzte eginkizun horietarako ere. Badira eliza moderno askotxo, non tradizio kristauaren apaingarri gutxi dagoen, eta bi funtzioetarako aise egoki litezkeen. Orain gure auzoko elizetan ez dago bake apur baten bila sartzetik, turista zaratatsuez beteta daudelako. Garapen hauxe iruditzen zait niri desegokia.

Hileta erlijiosoek ere garapena behar lukete: laikotasunari tartea utzi. Erlijiosoaren hautua egin arren, familiek ez dute ukatzen azken agurraren adiera soziala. Gainera Gipuzkoako azken apaiz gazte-karka aldrak sarri garapen teologiko lotsagarriaz burutzen ohi ditu zereemoniak. Entzundako sermoi baten haria: "Inork ez du ukatzen arima hilezkorra denik (horixe ezjakintasuna). Baina gure fedearen berezitasuna hauxe da: hezur haragitan berpiztuko garela sinestea. Juan ezagutu dugun bezalaxe, berdin



Jose Ignazio Ansorena

MUSIKARIA ETA TXISTULARIA


Hileta erlijiosoek ere garapena behar lukete: laikotasunari tartea utzi. Erlijiosoaren hautua egin arren, familiek ez dute ukatzen azken agurraren adiera soziala

-berdin, piztuko da azken egunean". Horri jarraiki hogeita piku minutuko saioa bota zuen delinkuenteak. Fededun izateko babu-plasta izan behar dela pentsarazi nahi zigun nonbait. Nola piztuko da Juan, hamabi urteko galtza motxetan edo zahartzaroko makuluaren laguntzaz?

Pertsona asko aztoratu omen ditu *Sapiens* liburuak. Utzita irakurri dut amerikar kutsuko *best-seller* erdi zientifiko-tranposoa: garapen zientifikoren ondorioz, etorkizunean ez dugu hiletarik beharko, hilezkorak izango garelako. Gertatzekotan, boteretsuen pribilegioa izango da. Horretan ez da garapenik: behekoak betiko legean hilko gara.


Utzita irakurri dudan beste liburua *Patria* da. Fernando Arámburu ikasle ohiak idatzia. Irakurterraza eta eskasa, lore eta ohore mordoa bildu duen arren. Horren gainean telesaila garatzekotan dabilta, baina aktore protagonista euskalduna lortzea zail gertatzen ari zaie. *Patria* jarri nahi lukete batzuek ikastetxeetan material didaktiko gisan, *Herenegun* proiektuaren orde. Fernando ikasleak hamasei urtez zituen obsesio berberak agertzen ditu liburuan. Ez du garapen handirik izan.

Gure zirkua uda honetako poz handia izan da. Iker Galarzak eta konpainiak garatutako ekimena arrakastatsu gertatu da. Merezki ere bai. Apustu egin dute eta haur eta helduen barreak, arreta, harridura lortu. Bejondeiela. Barreak ez du hiletarik behar. Hilezkorra baita. ■



HARPIDETU

**GUZTION LIBURUAK,
BIDEOAK, AUDIOAK...
GUZTIONTZAT**



BOOKTEGI
Guztion liburuak, guztiontzat

www.booktegi.eus

Azkena



Nerea Ibarzabal
BERTSOLARIA ETA
KAZETARIA
@ibarnere

Elgoibarren antolatutako “Euskara ala ezkara” jardunaldietan Harkaitz Canoren esaldi inspiratzaile horietako bat –beste bat gehiago– tatuatuta daramat lokian. “Noiz desagertuko da benetan euskara? Hitzun guztiak desagertzen direnean, ala bat bakarra geratzen denean?”. Bakar horrek ezingo du inorekin euskaraz berba egin, bere baitarako errezitatuko dituen poema eta kantuetan baino ez da biziko euskara, baina bizirik al dago hizkuntza bat horrelako baldintzetan?

Egun hartatik daramat irudikatzen nolakoa litzatekeen azken euskal hitzuna. Zein ote litzatekeen. Idiazabalgo amona bat? Santurtziko nerabe bat, bere gurasoak –azken bikote euskalduna– istripu batean galdu ostean, bakarrik geratu dena? Mauleko etxe ezkutu batean bizi den antzezle bat, euskararen desagerpenaren berririk izan ez duena bere azken obrarako inspirazio bila gotortu zelako duela bost urte? Edo, imajinatu euskararen egoeraren inguruko kontzientziarik ez duen bat dela gure azken hitzuna, eskolan aspaldi ikasitako apurrak oraindik ahaztu ez dituen bakarra. Zer egingo ote luke beregan gorpuzten den baina interes berezirik sorrarazten ez dion hizkuntza, kultura eta mundu ikuskera baten pisu horrekin guztiarekin?

Euskararen heriotzaren iragarpen denak bete ziren. Jendea aspertu zen agintariei neurri zehatzak eskatzeaz, eta kaleko aktibazio linguistikoek huts egin zuten. *Euskaraldia*-ri plaza bat eskaini zitzaion

Gasteizen, hori bai, hizkuntzaren bitzta urte batzuk luzatzea lortu zuen bakarra izan zelako. Baina, tira, gero etorri zen *Ahobizien* matxinada eta... gainerakoa badakizue. Inoiz baino ikurrina gehiago dago kaleetan orain. Lekuen izenak ingelesez, dagoeneko gaztelania bigarren hizkuntza izatera pasatu da Euskal Herrian. Amerikanoak eroso eta –behingoz– konplexu linguistikorik barik itzuli dira Idahotik eta Miamitik, eta orain *Little Boise* deitzen da Bilbo. Azken euskal hitzuna miretsia da jendartean, baina bizkartzainak ipini dizkio gobernuak, bera ondare historiko izendatzeko tramiteak hasi berri dituztelako, eta, noski, hor errezeloak sortzen dira. Lehiakide ditu Bizkaiko azken pinua eta Bardeetako militarizatu bako azken metro karratua.

Dokumentalak eta filmak egin dituzte azken euskal hitzunari buruz; SSIFF-eko aretoak goraino betetzen dira beti, nahiz eta inork barbarik ez ulertu, azpi-titulatzeko ere inor ez baita gai. Morboa handia da, baina, kuriozoso da, inori ez zaio burutik pasatzen euskara ikastea. Gehiago gustatzen zaie hizkuntza hilaren sonoritatea, besterik ez dute aipatzen areotik irtetea; hilda egoteak edertu egiten duela idatzi izan dute zenbait zutabegilek; azkenean, dagokion lekuan omen dago euskara: kondairen, eguzki-loreen eta sorginen munduan.

Azken euskal hitzuna irribarretsu doa lotara, bere ohiko protagonismo dosiarekin gustura. Eta argi dauka ez duela inorekin elkarbanatuko. ■

Sentimendu kontentzioa



Leire Narbaiza
Arizmendi
IRAKASLEA
@txargain

Mundua ez da beti jai, inoiz tristea ere bai” diosku *Mendian gora haritza* abestiak.

Eta mila motibo egon arren kantatzeko alai, tristeak ere hamaikatxo dira. Hauetaz gutxi egiten dela berba begitantzen zait.

Bizitzak zaplazteko ederrak ematen dizkigu, eta egungo euskaldunok erreakzionatzen ez dakigula uste dut. Gaixotasuna eta heriotza tabu bihurtuta, pena eta negarra ezkutatu beharra dugu. Hori da gure patua. Halere, sentimen horiei begiratu eta aurre egin behar zaie.

Gaitza da, batez ere gure kulturaren, ereduaren sentimenduei barruan eustea denean, errepremitzea. Hor dator arazoa, inoiz inpostore ere

sentitu izan gara batzuk, kontentzio giroan; hileta batean, esaterako.

Izan ere, oso-oso gertukoa ez bada hildakoa, ez dago ondo ikusia negar egitea. Gogo ikaragarria izan arren norbait besarkatzeko eta malkoei lasai atea zabaltzeko, ezin egin, ez ei delako gure estila.

Baina nork marka lezake pertsona batekiko dagoen afektua? Zirkulu gertukoenean egon ez arren, heriotza hori oso barruan sentienezake, pertsona maitagarria zelako, lagun ona, edota, beste barik, maite genuelako. Halere, begiak siku, bihotza gainezka gaude. Halakoengatik bakardadean negar egitea benetan da tristea, gero. ■

Hain ezkor eta hain baikor



Gizakiak eragin hondamendi orokorra, bai jendartea bai bere ingurumen osoa suntsituz, egunero hurbiltzen ikus dezakegu. Adiskide batzuek berriki gomendatu *Comment tout peut s'effondrer. Petit manuel de collapsologie à l'usage des générations présentes / Nola dena lehertzen ahal den. Kolapsologia eskuliburua, orainaldiko belaunaldi zuzendua* liburuan (Seuil, Paris, 2015), Pablo Servigne eta Raphaël Stevensen frogatzen dute katastrofea nagusitu daitekeela arlo guzietan. Begira giza harremanen bortizkeria, gobernuen zitalkeria, etengabeko gerlak, aberastasunen banatze orekagaitza, ingurumenari jasanarazten dizkiogun neurrigabeko erasoak... Nola sinetsi etorkizun hurbilean gizakia zentzatuko denik, hainbeste mendez eraikitako erokerie uko eginez? Nola uste izan, Euskal Irratietan Amets Arzallusek berriki erran duenaren ildotik, eguneroko "gauza sinpleek" erabat eralda dezaketela sistema ustel osoa? Geure buruaren akabantza jadanik apailatua daukagula da gauzarik argiena.

Alabaina, ikuspegi horrek sor dezakeen beldur eta etsipenari aurre egiteko, beharrik hor ditugula azken aste hauetan antolatu hainbat ekitaldi herriko: Zubietako *Iraultza Txiki*en *Akanpada*, Baionako *Alternatiba*, laster *Euskaraldia*... Milaka jendeak erakutsi dute -eta erakutsiko- modu engaiatua bizi nahi dutela, biziraupenaren ize- nean ekimen berriak abiaraziz, edozein arlotan, hezkuntzan, energian, emazte eskubideen alde, ekonomian, ingurumenean, migratzaileen harreran, euskararen defentsan... Mugimendu horietan murgiltzea bihotz altxagarri izaten da: zuzentasuna eta biziaren alde borrokatuz, ez gara gehiago sistema ero baten biktima indargabetuak sentitzen, baizik eta eguneroko heroi.



Katixa Dolhare-Zaldunbide

IDAZLEA



Antton Olariaga

Baina zerk bultzatzen gaitu engaiamendu horretara? Funtsezko baikortasunak, utopiak inoiz egiazta daitezkeen sinesteak, ala halabeharrak, Jean-Jacques Rousseau idazle frantsesak "iraupen sena" deitzen zuena -izaki bizidunen bizitzeko gogo, edozer gerta ere- hots, ezkortasunaren ilunpean sustraitua dagoen baikortasun behartuak? Jean-Jacques Rousseau ez dut biziki gogoko, baina uste dut arrazoi zuela, eta euskaldunok behintzat hala jokatzen dugula.

Berriki iragan diren Aldude Ibarreko *Ate idekietan*, hausnarketa berak egiteko parada ukan dut: zerk bultzatzen ote ditu urepeldar, aldudar eta bankarrak manera sutuenean munduari erakustera harana bizi dela eta tokiko biztanleek biziari nahi dutela, jakinez beren bizitza etengabeko borrokan oinarritua dela -administrazioarekin, izadiarekin?-. Aldudeko ibartarrek ikaragarriko indarra erakutsi diete bisitariei lau egunez, indar horrek ikaragarriko zalantzak, izuak eta etsipenak dituelarik behin behineko soilik itsutu.

Maiz entzuna izan da euskaldunok eskizofrenikoak garela, bai gure artean, bai erdaldunei begira beti bizpahiru postura kulturalen artean jokatzen dugulako, ezin finkatuz. Baina bipolaritate ere badaukagu: errealtatearen gordintasan eragin etsipen bihozgabetzaila dorpeenetik jauzi egin dezakegu euforia handienera, delako baikortasun behartu harenegatik. Alternatiben bestek eta *Euskaraldia*-k sorrarazi diguten karra erraustuko digu laster Eguberri kari goraiatuko den gain kontsumo okaztagarriak, baina berriz piztuko Korrikak... Aurten Gazteluma saria lortu duen *Girgileri anderea* eleberrian, hain zuzen ere Maialen Heguy-Lucuk bipolaritatea dauka aipagai, bereziki horren inguruan dauden tabuak euskal gizartean. Denok hein batean bipolarrak bihurtu garelako ote? ■

LANDAREAK LANTZEN 2019

LURRA LANTZEKO AGENDA-LIBURUA

HILABETEARI
LOTUTAKO LANAK
BARATZE,
FRUITU BARATZE,
LORE BARATZE
ETA BASOAN

ILARGIAREN
BI ZIKLOAK,
ONGARRIKETA,
LANDARE LAGUNTZAILEAK,
TRATAMENDU NATURALAK,
LUARRA NOLA EGIN...

**Jakoba Errekondoren jakintza eta
Antton Olariagaren ilustrazioak.**
Aurtengo gaia: lan-tresnak

12€

Bidalketa gastuak
4€

   @bizibaratzea

 **ARGIA**
argia.eus

BIZI BARATZEA
bizibaratzea.eus

Erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545

**Jakoba Errekondok
sinatzeko aukera*



Indarkeria matxista salaketak

Prozesu judizialaren argi-ilunak

Indarkeria matxista kasuak denuntziatzeko joera indartzeko asmoz, salaketak jartzearen garrantzia azpimarratzen duten mezuak han eta hemen aurkitu daitezke. Era berean, baina, oso gutxi jakin ohi da behin salaketa jarritakoan martxan jartzen den prozesu judizialari buruz, eta ezjakintasun horrek salatzaileari albo kalteak eragin diezazkioke. Erasoak salatzeak bezainbeste garrantzi baitauka honen gaineko ikerketa eta prozesua bideratzeko moduak. Salaketa bat jartzeari begira, indarkeria matxistari dagokionez sistema judizialak gordetzen dituen argi-ilunei erreparatzeak ezinbestekoa behar luke.



Amaia Lekunberri Ansola

@amaialekunberri

Ez da eraso matxistak salatzearen garrantziaz bezainbeste hitz egiten salaketa batek abiarazten duen prozesuaz, eta baliteke askok horren ondorioz barnerratu izana salaketa jartzearekin eraso jasan duen norbanakoa babestuta dagoenaren ideia. Errealitatea oso bestelakoa da ordea, eta indarkeria matxista salatu duten emakumeek* prozesu judizialean izaten dituzten emozio eta sentipenak babes sentsaziotik oso urruti egon ohi dira gehienetan: berbiktimizazioa, kues-


tionamendu etengabekoa edota gertakariaren gaineko erantzukizunaren kargu egitea kasu. *Argituz* giza eskubideen aldeko elkarteak 2013an plazaratutako txostenak jasotzen dituen testigantzen gehiengoak "tratu desagokoa, informazio falta edo enpatia eskasa" jaso izana adierazten dute. Datu eta estatistikak emozio eta sentipenok errealitatearen isla fidagarria direla adieraztera datoz.

Femicidio.net behatokiak Espainiako Estatuko Botere Judizialaren Kon-



LEONARD BEARD

tseilu Nagusiak genero indarkeriaren gainean emandako 2016ko datu estatistikoekin egindako analisietan erreparatu dezakegunez, Hego Euskal Herrian badago lana genero indarkeria jasan duten emakumeei eskaintzen zaien atentzio eta babes judiziala hobetzeari dagokionez. Are gehiago, indarkeria jasan duten emakumeak okerraren artatzen dituen lurraldeen artean dago Bizkaia, eta horrek esan nahi du emakumeen babesgabetasun eta ber-



biktimizazio arriskua areagotu egiten dela bertan. Jarritako salaketen ukazioei dagokienez ere nabarmentzen da lurraldea -%16,91k botatzen du atzera salaketa, Gipuzkoan (%5,74), Araban (%1,36) eta Nafarroan (%9,32) baino dezente gehiagok-, eta litekeena da justiziaren ezarpen okerrak eta berbiktimizazioak eragindako joera izatea. Bizkaiaz gandi, ordea, salaketekin atzera egiteko joerak beheranzko norabidea hartuta dauka orokorrean, nahiz eta

kontrara, salaketak artxibatzeko joerak gora egin duen. EAEn salaketen %38,58 artxibatu ziren, eta %41,28 Nafarroan. Delitua eman izana ez justifikatzea, horixe izan ohi da gehienetan kasuak artxibatzeko arrazoia. Erasotzaileari zigorra ezartzera heltzen diren salaketei dagokienez, %30,63 izan ziren EAEn eta %20,77 Nafarroan.

Urruntze-agindu eta babes neurriei dagokienez ere okerrerako nabarmentzen da EAE, salaketen %8ari eta eskae-

ren %49,54ari soilik esleitzen baitzaizkio ordena eta aginduak, eta hemen ere Bizkaia nagusitzen da Nafarroa, Gipuzkoa eta Arabaren gainera: %19,12, %0,28, %0,69 eta %0,00 dira, hurrenez hurren, bateko eta besteko urruntze-agindu eta ordena onartu gabeen kopuruak.

Datuetan atentzioa ematen duen beste aspektu bat emakume atzerritarren gainordezkaritza da: salaketa jartzen dutenen %39,58 dira Bizkaian, %24,41



Gipuzkoan, %50,84 Araban eta %32,55 Nafarroan. Zenbakiotan erreparatuz, Araba eta Bizkaia genero indarkeria pairatzen duten emakume atzeritarrak nabarmenki aintzat hartzen ez dituzten lurraldeen artean kokatzen ditu analisiak. Horren adierazle gordina da Maguette Mbeugou, indarkeria matxistak Euskal Herrian eraildako azken aurreko emakumea –lerrook idatzi bitartean indarkeria matxistak beste emakume bat erail du Iruñean-. Mbeugouk, hil zuen bikotekidearen kontra salaketa jarri zuen, eta eskatu zituen babes neurriak ez zizkioten onartu. “Maguettek aurre egin behar izan zien bai sistema patriarkalaren indarkeria matxistari, bai sistema kolonial eta arrazista honen indarkeria instituzionalari”, salatu zuen Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxak.

Euskal Herrian aurten eraildako zazpi emakumeetatik hiruk –Mbeugouk, Roxanek eta Yolandak– jarri zituzten beraien bikotekide eta hiltzaileen kontrako salaketak. Castejonon (Espainia) alaba biak hil zituen gizonaren kontra ere jarria zeukan salaketa honen bikotekide ohi bizkaitarrak, zeinari urrun-tze agindua ukatu zitzaion. Salaketak tartean egonik, emakume eta neskato hauen bizitza babestu eta bermatzeko eginkizunean zerk huts egin duen hausnartzeko beharra agerian jartzen dute hilketok.

Eneko las Heras ilustratzailearen bineta.

» Euskal Herrian aurten eraildako zazpi emakumeetatik hiruk –Mbeugouk, Roxanek eta Yolandak– jarri zituzten beraien bikotekide eta hiltzaileen kontrako salaketak

» **MIREN ORTUBAY FUENTES (ZUZENBIDE PENALEAN DOKTOREA):**
“Ezin daitezke emakumeak informaziorik gabe salaketak jartzera bultzatu”

Salaketa: tresna bat besterik ez

Zuzenbide Penalean Doktore eta EHUko irakasle den Miren Ortubay Fuentesen arabera, salaketa helburu bezala xedatzea kaltegarria suerta daiteke, hau indarkeria jasan duten emakumeen eskura dagoen tresna bat gehiago besterik ez baita. *Pensamiento Crítico*rako 2015ean idatzitako monografiko batean dioenez, “hur-hurreko arriskurik ezean, kalte-tua arduraz ‘prestatu’ behar da salaketa jartzeko, heldulekuak eta bere burua babesteko bitartekoak bilatuz, erasotzailea ez delako berehalakoan kartzelaratzen beti, ezta emakumea harrera zentro batera joaten ere”. Salaketak erasotzailearen ofentsiba indartu eta emakumearen arriskua areagotu dezake, eta kasurik muturrenekoetan feminizidio bati bide eman. Komeni da beraz, egoerak horretarako tarterik ematen badu, aurrelanketari tarte bat eskaintzea. “Ezin daitezke emakumeak informaziorik gabe salaketak jartzera bultzatu”, dio.

Ortubayrekin bat dator Ana Lopez abokatuak: “Guk, Donostiako Emakumeen Etxeko Erasoen Kontrako Batzordetik –zeinaren parte den– emakumeak komisaldegira sartu aurretik zer biziko duten jakitea oso beharrezkoa ikusten dugu”. Azaltzen duenez, hedatuta dago komisaldegira jo eta salaketa jartzearekin dena eginda dagoenaren uste falttsua, eta hori horrela ez dela jakitera emateko bitartekoak bilatu beharra azpimarratu du. “Ez da batere komenigarria zer nahi duzun argi izan gabe komisaldegian sartzea. Behin bertan sartuta, ez dakizu nola aterako zaren”, dio. Salaketa jartzera heldu gabe ere prozesuan katramilatzea posible dela ohartarazten du: “Emakumeak Ertzaintzari zerbait gertakariren berri eman diezaioke, agenteak hauek delitu posible bezala hauteman, eta auzitegia jakinaren gainean jartzeko derrigortasuna izan. Une horretan emakumea prozesuaren labirintoan aurkitzen da”, dio.

Aurrelanketaren garrantzia

Albo kalteak ekiditea xede, komenigarriena salaketa lanketa baten ostean burutzea da. Ortubayren iritziz, salaketa jartzera doanak “non sartzen den, ez dela erraza izango eta babes psikologikoa beharko duela” jakin beharko luke. Emakundek 2007an publiko egindako *Baliabide Judizialei eta Abokatu-la-*

guntzari buruzko ebaluazioa txostenak argi dio: “Prozesu judizialaren aurretik, iraun bitartean eta ostean informata egotea” beharrezkoa da. Prozesu judiziala arrakastatsua izateko aukerak areagotu egin daitezke bi aspekturi erreparatuz gero: 1) prozesuak zertan datzan eta 2) zer eskaini diezaiokeen salatzaileari.

Prozesu judiziala komisaldegian jarritako salaketak abiarazten du, eta pauso hau emateko ofiziozko abokatu batek artatua izateko aukera dago. Salaketa jarri eta biharamunean, auzitegian deklaratu behar izaten da. Salatu den gertakaria sexu eraso bada, instrukzio auzitegi batera bideratuko da kasua. Eraso bikotekideak edo bikotekide ohiak egindakoa bada, Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegira bideratuko da hiriburuetan, eta tokiko instrukzio epaitegira herrietan. Ulertu daitekeenez, kasua auzitegi espezializatuetan edo instrukziozko eraman, nabarmen baldintzatu dezake prozesua. Emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako auzitegiek instrukziozkoekin baino lan karga txikiagoa izateaz gain, hauetan “epaileak indarkeria pairatu duenarekin izan dezakeen enpatia eta interrogatzeko modua ezberdina da”, dio Lopezek.

Auzitegiko egonaldiek denboran luzatzeko joera dute, eta gerta daiteke emakumeak gela batean itxita itxaron behar izatea deklarazioa egiteko momentua heldu arte. “Zeren salatua izan dena atxilotua izan ez bada, epaitegiko korridorean egon daiteke” azaldu du Lopezek, halako kasuetarako auzitegiek emakumeentzat egokitutako espaziorik ez daukatela nabarmenduz. “Emakumea gelatxo batean sartzen da eta gizona itxaron gela handian geratu”, salatu du.

Behin epailearen aurrean, salatzaileak zein salatuak –identifikatua izan den kasuetan– deklarazioak egin behar izaten dituzte, eta magistratuak kasua artxibatu edo prozedura penalar bide ematea erabaki, baita urruntze-agindua ezarri ala ez. Urruntze-agindua eman ez eta salaketarekin aurrera egitea ere gerta daitekeela azaldu du Lopezek, emakumeak indarkeria psikologikoa salatu eta egiaztatze frogak falta direnean kasu. Hala ere, probableena prozesua egun horretan bertan ixtea dela ohartarazi du, prozedura azkarraren bidez. “Jo zaituela salatu eta medikuaren partea



Elkoko ilustratzailearen bineta, justiziaren izaera patriarkala irudikatuz. “Justiziak ez du generoagatiko ezberdinketarik egiten, epaileek bai”, dio irudiarekin batera publiko egindako twitter mezuan.

badaramazu, nahiz eta kolpearen atzean indarkeria gehiago ezkutatu, prozesua egunean bertan bukatu daiteke erasotzaileak gertakariak eta dagokion zigorra onartzen baditu”, azaldu du. Bide honek prozesua arintzen du, baina “eraso larriagoen inpunitateari mesede” egin diezaioke Ortubayren hitzetan.

Sistema penala zer den eta salaketa jarri duenari zer eskaini diezaiokeen argi izatearen garrantziaz ere mintzatu da Ortubay. Salaketak jartzearen beharra ezbaian jartzeko asmorik gabe, sistema penala “zigorrak ezartzeko makina” besterik ez dela dio. Hala bada, “askotan ez datoz bat emakumeen interesak eta justiziak eskaintzen duena. Emakume askok salaketarekin bilatzen dutena indarkeriazko harremanetik ateratzea baita, ez erasotzailea zigortzea”. Sistema penalaren izaera zigortzaileak ustekabe harrapatu dezake bat, eta panorama horren aurrean prozesua bertan behera uztea planteatzera eraman. Momentu horretan, “sistema emakumearekin ‘haserretzen’ da, gaur salaketa jarri eta bihar deklaratu nahi ez izateagatik”, ohartarazi du. Horrek, dudarik ez da, negatiboki eragiten du prozesuan.

Prozesuaren gune ilunak

Prozesuak zertan datzan eta zer eskaini dezakeen argituta, ibilbide judizialaren gune ilunak argitara ekartzea komeni. Batetik, indarkeria matxistaren adierazpide asko frogatzeko zailtasunak daude, marka fisikorik ez dagoenean batik batik. “Sistema penala gertakari konkretuak epaitu behar ditu zigortu ahal izateko (...) eta frogan ekarpenak egin ditzaketan neurrian interesatzen zaizkio emakumeak”, dio Ortubayk. Intimitatean gertatzen diren erasoak egiaztatze frogak batzea zaila izanik, kasu asko zigorrik gabe artxibatzen direla azaldu du. Bestetik, indarkeria instituzionala dago, 1993an NBEren Asanblada Orokorrak “Estatu batek burutu eta onartutako indarkeria fisiko, sexual eta psikologiko” bezala jaso zuena. Indarkeria hori, besteak beste, hurrengo modu sotiletan ematen da eta prozesu judiziala gogorra bilakatu dezake:

Justiziaren izaera matxista. Ortubayk itzulingururik barik dio azkenaldian kalean hainbatetan errepikatu dena: “Justizia patriarkala da, jendartea bezala”. Orain gutxi *Galde* aldizkarian argitaratutako artikulu batean zera dio honen gainean: “Kolektibo horretan –epailetzaz dihardu– ekarpen eta teoria feministenganako ezjakintasunaren gainean daukaten kontzientzia falta larria ziurra da. Ezjakintasuna, eta baita mespretxua ere. Beste alor batzuetan epaileek ez dakitela badakite, eta adi-



tuen aholkularitza onartzen dute”. Feminismoarekin, baina, ez dela berdina gertatzen dio.

Estereotipo misoginoak. Aipatu izaera matxistaren eraginez, epaileek emakumeen zenbait estereotipo izaten dituzte sarri, eta gailentzen dena “emakume gezurtiarena” da Ortubayren arabera. Horren ondorioz, “epailea emakumea egia esaten ez dabilela susmatzen hasten da, edo zuzenean berau epaitzen”. Estereotipook kalte nabarmenak eragiten dizkie salaketa jarri duten emakumeei: beraien hitza zalantzan jartzean berbiktimizatu egiten dituzte, eta horrek –beste hainbat konturen artean– prozesuarekin aurrera ez jarraitzera bultzatu ditzake. Hori gutxi ez, eta bertan behera utzitako salaketa horiek “salaketa faltsu” bezala hautemateko joera dago. Horretaz gain, estereotipook epaitzan emakumeenganako mesfidantza hedatu dutela dio Ortubayk, eta horri egotzen dizkio urruntze-aginduen ukapeneak ugaritzea, bai eta babesa eskatu eta onartu ez zitzaizen emakumeen hilketak.

2016ko Sanferminetako talde bortxaketaren gaineko epaiak haserrea eragin zuen jendaratean, sexu delitutzat ordeztu abusatutak jo baitzuen emakumeari egindako eraso. Argazkian, Nafarroako epaitegi aurrean mobilizatutako jendearen sumindura, epaia publiko egiterakoan.

EKINKLIK ARGAZKIAK

» **MUJERES AL CUADRADO ELKARTEKO KIDEAK:**
“DSBEarekin bizi behar dugu, ezin gaitzke EAETik atera, dirua zertan gastatzen dugun erakutsi behar dugu eta elikagai bankura joan behar gara. Baldintzapeko askatasunean bizi gara, eta ez dugu hori merezi”

Indarkeria instituzionalaz gain, bada geroz eta sarriago ematen den fenomeno bat ere: erasotzaileek emakumeen aurka jarritako **salaketa gurutzatuak**. Bikotekidea menderatu asmoz erabilitako indarkeriaren eta erresistentzia modura erabilitakoaren artean ezberdintzeko joeraren faltan, kontrasalaketei bide ematen zaie auzitegietan. Hala bada, emakumeak indarkeria sexistatik babestu asmoz pentsatutako neurriak hauen kontra jarri ditzake erasotzaileek darabilten estrategia honek.

Alternatiben beharra

Egoera hau izanik, Ortubayren iritziz “sistema penaletik at emakumeari babesa eskaini diezaioketen alternatibak behar dira, emakumeak ahaldunduko dituztenak eta hauen eskura benetako baliabideak jarri ditzaketanak. Sistema penala ez dadin izan ez erantzun bakarra ezta nagusia ere”. Bere aburuz, sistema penalari hainbeste garrantzi ematean baitago akatsa. Berarekin ados dago Lopez, zeinari garrantzitsuak iruditzen zaizkion Emakumeen Etxeak.

“Berebizikoak dira horrelako espazioak, eta mugimendu feminista horietan ego-tea”, dio.

Eibarko Andretxea Emakumeen Etxean bada alternatiba bat, zortzi urtez lanean diharduena: Indarkeria matxista pairatzen ari diren edo pairatu duten emakumeei laguntza, konpainia, orientazioa eta enpatia eskaintzen dien *Mujeres al Cuadrado* (Emakumeak Ber Bi euskaraz) elkarteak, bere garaian indarkeria jasandako emakumeez osatua. Euren esperientzietan oinarrituta, beharrezkoa ikusten dute indarkeriaren zirkulutik ateratzeko prozesuan da goen emakumeak prozesu berbera igaro duten beste batzuren babes izatea. Azaltzen dutenez, beraiek instituzioetatik hainbestetan errepikatzen zitzairen “hemendik aterako zara” esaldia ziurtatu beharra sentitu baitzuten bere garaian.

Emakumeren batek behar izatera, ar-tatu egiten dute eta aurrera begira jarraitu beharreko prozedura azaltzen diote. Hala ere, elkartearen eginkizun nagusiak ekonomikoki larri dabiltzan emakumeak jabekuntza eskolako formakuntzak egiteko diruz laguntzean datza, hauen ahalduz laguntzeko asmoz. Horretaz gain, elkartera gerturazten diren emakumeak asteburuko terapia bat egitera ere gonbidatzen dituzte noiz edo noiz. Beraiei oso mesedegarri suertatu zitzairen: “Han ikusarazi ziguten norbere bizitzaren ardura norberak daukala, eta erabakia norbere eskuetan dagoela”, dio beraietako batek. Horretaz ohartzeak bizi zuten egoera eraldatzeko gai bilakatu zituela baieztatu dute.

Atzera begiratu, prozesu judizialean oso gaizki pasatu zutela gogorarazi dute, baita epaitegietatik at ere. Kidee-

Madriko (Espainia) Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiaren inguruetan, auzitegiaren noranzkoa markatuz, seinale matxistak agertu ziren 2016an. “Epaitegi feminazia”, “Salaketa faltsuak”, “Auschwitz feminazia: gizonezkoen birrintzailea” edo “Kriminal prebarrikatzaileak” gisako mezuak irakur zitezkeen horietan. Epaitegiko langileek adierazi zuten, halako ekintzak maiz egiten dituzte, eta bere pribilegioak arriskuan ikusten dituen jendarteko sektore baten izaera matxista adieraztera datoz. Emakumeen gaineko estereotipo misoginoak, baina, biztanleriaren zati baten kontua izatetik urruti, gizartean erroturik daude. Eta era sotilagoetan bada ere, epaitegietan ere presente egoten dira, emakumeen babeserako izan beharko luketen legeak hauen kaltetan aplikatzea eraginez.



NURIA VARELA

**‘Emakume’ izendapenak genero sistema bitarraz gaindiko gorputz eta identitate askotarikoak barne hartzeko orduan mugak jartzen dituen arren, artikulu honetan aniztasun hori barne hartzeko erabiliko da.*

tako batek dioenez, “batez ere jendarte-” sentitu zen kuestionatua. Hori gu-txi ez eta “gizon batekiko dependentzia emozional, ekonomikoa eta absolututik estatuen dependentzia erabatekora” edo “guraoenera” igarotzearen lazgarritasuna mahaigaineratu dute: “DSBEa- rekin (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) bizi behar dugu, ezin gaitezke EAETik atera, dirua zertan gastatzen dugun era- kutsi behar dugu eta elikagai bankura

joan behar gara. Baldintzapeko askata- sunean bizi gara, eta ez dugu hori mere- zi”, salatu du batek.

Trabak traba, denborak eman dien perspektibatik zera diote: “Emakume batek tratu txarrei eta menderatuta bi- zitzeari eutsi badio, hortik ateratzeko behar beste indar dauka”. Ez da bide erraza, baina bai zertxobait eramanga- rriagoa halako elkarten jardunari es- ker. ■



Zarautz
Hileta Zerbitzuak



Harrespil
Hilerri eta Hileta Zerbitzuak



Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · Zarautz (Gipuzkoa)
☎ 943 894 937 / Faxe: 943 894 941 · harrespil@harrespil.net

Amilaga, 39 · Bergara (Gipuzkoa)
☎ 943 761 299 / Faxe: 943 761 299

Hilerrien gestioa · Hileta zerbitzu orokorrak · Zerbitzu iraunkorrak · Koroak · Eskelak



KATALUNIAKO PROZESUTIK IKASTEN EUSKAL HERRIAN ZER?

CUP, Gure Esku Dago, Sortu eta Zergatik ez? antolakundeetako ordezkari banarekin mahai inguru egin zuten Gipuzkoako Zubietan irailaren 23an. Iraultza Txikien Akanpadako solasaldietako bat zen. Helburua, bikoitza. Kataluniako prozesu independentistatik euskal herrigintzarako irakaspenera ateratzea, bata; Euskal Herrirako estrategia independentista eraginkor baterako gakoez eztabaidatzea, bestea. Tarteka bat egin bazuten ere, toki oso ezberdinetik egin zuen hitz bakoitzak.



Z. Oleaga

Hitza hartzen lehendabizikoa Iñigo Robredo Korta izan zen, Kataluniako CUP alderdiko nazio-idazkaritzako kidea. Prozesu independentistak eman dituenak eta eman ditzakeenak aletzea zegoen hari. Erreferendumaren eta independentzia adierazpenaren inguruko gertaera historikoek jarraikortasunik izan ez bazuten ere, ondorioak atzerainak direla adierazi zuen. Horiek zehaztasunez identifikatzeko goiz dela esan zuen ordea: "Ikusteke dago erai-ki genuen egia berri horren, subjektibitate berri horren esanahi politikoa. Venezuelan bederatzi urte joan ziren *Caracazo* deituriko protesta herritarren eta Chavezen botere hartzearen artean. Zenbat denbora beharko dugu guk Errepublikara eraikitzeko? Ez dugu jakiterik".



ARGAZKIA: JAVI JULIO

Irakaspenera positiboak eta negatiboak zerrendatu zituen CUPeko kidea. Lehendabizikoen artean, herritarren mobilizatzeko eta erantzuteko gaitasuna eta sindikalgintza "borrokalariaren" jarrera. Gabezi eta akatsetan gehiago luzatu zen. "Erabakiguneen bertikalatasuna eta opakutasuna", erabakiak bulegoetan koiatzea. Espainiako Erreintutik inposatutako hauteskundeak

onartzeak, legalitate arrotza onartzea ekarri zuelako, haustura prozesuari amaiera emanez. Izan ere, hausturaren ulerkera okerra eta onberegia nagusitu zen bere ustez: "Ez dezagun sinetsi *legetik legera* dioen *mantra*". Erakundeek beldurra diote desobeditzeari, haien barne logikaren ondorioz. Kaleak izan behar du "instituzioa gainezkatu eta desobeditzera behartzen duena".



Mobilizazio ziklo bat amaituta, in-
dar metaketa fase berri batean ikusten
du Katalunia CUPEk. Galderak eta ziur-
gabetasunak asko dira, horregatik za-
baldu dute hausnarketa prozesua. Ez-
tabaida potoloenetako bat boterearen
ingurukoa da. “Mugak, azpiegiturak,
kapitala. Nola lortu hiru horien kontrol
herrikoia?”. Bien bitartean, esparruz es-
parruko burujabetza prozesuetan ari

dira pisua jartzen. “Etokizunaz hitz egin
nahi badugu, burujabetzei heldu behar
diegu. Jendeari hitz egiten badiozu Erre-
publikak duen balio praktikoaz, bizi-bal-
dintzak aldatzeaz, entzun egingo zaitu”.
Faktura elektrikoak edo saltoki handie-
tako jaki pozoituak aipatu zituen, bes-
teren artean. “Independentzia ez dugu
ulertzen bandera aldaketa bezala, para-
digma eta bitzta aldaketa gisa baizik”.

Zer ikasgai atera dugu Euskal Herrian?

Euskal Herriko eragileen txanda. Eus-
kal herrigintzarako zer irakasgai ate-
ra ditzakegu Kataluniatik? Kataluniatik
harago, gaur eta hemen, zer? Bi galdera
horiei erantzun behar izan zieten Sortu-
ko Pello Otxandiano Kanpok, Gure Esku
Dagoko (GED) Unai Lizasok eta Donos-
tiako Antigua auzoko Zergatik ez? eki-
meneko Unai Apaolazak.

Apaolaza hasi zen, “konstatazio eder” batekin: hamar urteren bueltan, independentismoa hirukoiztu egin da Katalunian. Ikasgaiak nabarmendu zituen eta bilakaera hori azaltzen duten zergatiekin lotu zituen. “Erritmoa eta agenda jendarte antolatua esku daudenean, prozesua azkar eta norabide onean doa. Balantzak alderdien aldera egiten duenean, prozesua geldotu eta agendan galerak egon daitezke. Biak behar dira, elkar eragiten, kontua da nork eramatean duen agintea”. Urriaren 1a konfrontazioaren indarraren erakusgarria da bere hitzetan. “Konfrontazio maila altuek independentismoa handitzen dute, toki eta modu egokian sortzen badira”. Azken ikasgai bat ere azpimarratu zuen Apaolazak: indarrak alderdien arteko hitzarmen baten bila baina, jendartearen aktibitate eta erradikalizatzean jarri izana. Nabardura eman lezakeen arren, estrategiak finkatzean alde “itzela” ezartzen duela adierazi zuen.

“Zooma zabaldu behar dugu”, hasi zen Otxandiano prozesua mundu mailako eta Europako testuinguruan

kokatuz. Kapitalismoaren krisi sistemikoaren eta “fase basatiaren” garai hauetan, European bi erreakzio ari dira gertatzen. Faxismotik hurbil edo faxismoan bertan kokatu daitekeen “eskuin xenofobo populista” eta “kutsu progresistako erreakzio populista”. Azken horretan kokatzen ditu prozesu herritar asko: M15-a zein Eskozia, Irlanda, Katalunia edota Euskal Herriko prozesu subiranistak. Bere ustez denek dute funtsean aldarrikapen bera oinarri: “Burujaitezaren berreskurapena”. Estatutik gabeko nazioetan, erreakzio horrek estatu baten aldarrikapenaren forma hartzen du Otxandianoaren hitzetan.

Mobilizazioa sistema politiko-instituzionalaren erabilerarekin konbinatzen dute. “Hori da, adibidez, Kataluniaren ikasgaietako bat. Bi espazio horien arteko etengabeko dialektika, kontraesankorra, batzuetan elikatzailea bestetan geldialdira daramana”. Geldialdi egokian leudeke orain Katalunian Sortuko kidearen ustez.

Baina prozesu herritarrek ez dira fase bakarrekoak, Otxandianoaren esane-

tan. Katalunian, fase autodeterminista urriaren 1eko mugarrin amaitu zen. Geroztik, “Errepublikaren ezarpenaren fasean” daude. “Inork ez daki zer gertatuko den, baina aurreikus daiteke fase luzea izango dela”.

Gure Esku Dago mugimenduko Lizasok euren hausnarketa propioak baina, Kataluniako eragileek helarazi dizkietanak partekatu nahi izan zituen. “Bi akats nagusi aipatu zituzten: bata, ez zirela ausartuko sinestea; bestea, European esperantza izatea.

Dauden tokira ailegatu izana azaltzeko, hiru krisi aipatu zizkieten Katalunian. “Krisi ekonomikoa, M15-a adierazle nagusi izan zuena. Krisi politikoa, instituzioekiko eta klase politikoarekiko haserre eta atxikimendu ezarekin. Eta lurraldetasun krisia, 78ko Erregimena auzitan jartzen duena”. Herri mugimenduek horietan guztietan izandako eragin handia azpimarratu zuen Lizasok, baita garatutako moduak ere. “Jakín izan dute borroka oso erradikalak eramaten formak oso ondo zainduz. Erakargarriak, irribarrea, errespetua. Jendea hurbiltzeko bidea ere badira”.





Sortuko Pello Otxandiano mikrofonoa eskuetan.

Euskal Herrian zer?

Pello Otxandiano baikorra da. “Mobilizazio ziklo historiko honekin lotzen den pulstio sozial oso potentea dagoela iruditzen zaigu”. Horren adibide, hiru mugimendu nabarmendu zituen: pensionistena, feminista eta Altsasukoen ingurukoa. Horiei eta beste askori burujabetzarekin lotura zuzena ikusten die. “Erronka da nola eraman hori guztia burujabetza proposamen konkretu batera. Independentismoak zer proposamen taktiko-estrategiko jarriko duen mahai gainean, pulstio sozial hori artikulatzeko gai izango dena”.

Espainiako Erreinuaren dimentsio anitzeko krisiaren testuinguruan kokatzen zuen erronka Otxandianok, eta krisi ekonomiko berri bat heltzear. “Estatu honi ezingo zaio etsi”. Inboluzio demokratikoa eta polarizazioa aurreikusituen, tartean Euskal Herriaren aurkako jarrerak. Independentismoaren erronka da une horri aurre egiteko moduan egotea: “Haustura uneek horretarako prest egotea eskatzen dute”.

GED ez da eragile independentista, eta horrek bere arrazoibideetan isla duela ohartarazi zuen Unai Lizasok. “Hiru oinarriekin jaio ginen: herri bat gara, erabakitzeko eskubidea dugu eta herritarron garaia da”. Azken baieztapena da gakoa bere ustez. Herrigintza, alderdiak, instituzioak. Hiru eremu horien arteko “sinkronia eta elkarlana garrantzitsuak dira”. Izango dira tentsioak eta tirabirak

beren ustez, eta beraz, “herritarrok eta herri mugimenduok hartu behar dugu nolabaiteko lidergoa, bidea zein den erakutsiz”.

Printzipio horiek GEDen praktika politikoan lurreratuz, herri-galdeketa eta urte honetako giza-katea ekarri zituen hizpidera Lizasok. Galdeketen bitartez, erabakitze eskubidea aldarrikatzen praktikatzera egiten da jauzi, “mentalitatean aldaketa dakar”. Kateak bi helburu nagusi zituen, herritarrak aktibatzea eta EAEko autogobernu ponentziari bultzada ematea. “Helburuak sobera gainditu genituen”. Aurrera begira, *Herri Ituna* gorpuztu nahian dabilta, erabakitzeko eskubidea edukiz bete nahian. “Oso lotuta dago diskurtso subiranistarekin”. Otsailerako ekimen handia ari dira prestatzen esango duena *gu erabakitzea goaz, baimenik eskatu gabe*. “Fase politiko berri baten hasiera”.

Estrategia berriak garatu nahian, baina hankak eskema zaharretan preso. Horrela irudikatu zuen Apaolazak euskal independentismoa. “Hor izugarriko kontraesanak eta frustrazioak sortzen zaizkigu”. Independentismoaren markoa, “naturalizat hartzen duguna” eraldatzeko beharra argi du. “EAJ geruratzea edo zatitzea helburu duten estrategiak alboratu eta %80ko independentismo baten bila jo behar dugu. Kataluniak erakusten du posible dela”.

Gako egokiekin asmatzea da kontua, Apaolazaren ustez. “Hasteko, indepen-

dentzia abertzaleen kontua dela dioen leloarekin apurtu behar dugu, estatu propio bat guztion onurarako litzatekeela argudiatuz. Alderdien papera birplanteatu beharra legoke, aldi berean. Artikulaziorako akuilu ezinbesteko bai, baina ez dutelako erreminta nagusi bezala balio”. Gehiengoak sortu eta gorpuzteko, hitzarmenez gain, toki eta modu egokian planteatutako konfrontazioa garatzea defendatu zuen. Aurreko guztia bultzatzeko, “prozesu independentistan agenda eta konfrontazioa” markatzeko gai izango litzatekeen eragile baten beharra genuke.

Epe laburrean, udaletxeak proposatu zituen borroka zelai bezala. Udaletan ezker independentistak duen indarra jendartearenarekin batuz, “herriarekiko obediencia edo autodeterminazio ekin-tza potenteak” garatzeko baldintzak ikusten ditu. Eta, uneoro, pedagogia independentista. “Egunerokoan eragiten diguten gauzak hartuz, Errepublikaren beharra argudiatu dezagun”.

Ezberdintasunak eta puntu komunak jarri zituzten hizlariak mahai gainean. Etorkizunari begira Katalunia zein Euskal Herrirako hainbat gakotan egin zuten bat, nor bere begiradatik. Etorriko dena idatzi gabe dago, aurreikusten zaila, garai erabakigarriak... Hizlariak entzunda, argi geratu zen emaitza erabakiek eta praktikek baldintzatuko dutela, eztabaidak irekia jarraitzen duela eta premiazkoa dela. ■

Felix Zubia Olaskoaga

“Medikuok hizketan gaztelaniazko hitz teknikoak erabiltzen ditugu eta lanean guztia gaztelaniaz idazten dugu”

Irailak 13 eta 14, Bilbo. *Osasuna eta Hizkuntza* jardunaldiak EHUko Udako Ikastaroetan. Hamarnaka lagun bildu ziren osasun arloan euskaraz lan egiteko bideak jorratzeko. Pazienteak sarri gaztelaniaz artatzen badira, osasun eremuan lan hizkuntza erabatekoa gaztelania da. Jardunaldiotan Bilbo Hiria Irratia izan zen eta hainbat hizlariri elkarrizketak egin zizkien. Horietako bat Felix Zubia Olaskoaga izan zen. Donostia Ospitaleko Zainketa Intentsiboetan mediku eta EHUko Medikuntza Fakultateko irakasle laguntzailea. Bilbo Hiria Irratiak egindako elkarrizketa paperera ekarri dugu.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

Felix Zubia, zure hitzaldian osasuna eta hizkuntza lotuta aritu zara hizketan. Zer kontatu diezu entzuleei?

Zientzia aldetik gutxi daukagu gai horri buruz. Batez ere nire iritzia eta ikuspegi eman dut, eta nondik jo beharko lukeen kontuak.

Kontaiguzu zer azaldu duzun.

Lehenik eta behin, Osakidetzan eta osasun eremu guztian, euskara lan hizkuntza izatea behar handi bat da. Noski, beti erabili izan dugu euskara komunikaziorako, bai pazienteekin, baita langileen artean ere. Baina euskara lan hizkuntza bihurtzea urrats bat aurrerago joatea izango litzateke. Hau da, gure dokumentuak euskaraz idatzi eta gai medikuei buruz hitz egiten ari garenean euskara erabili. Zeren askotan gertatzen zaigu, ez gaudela ohituta euskaraz egiten, eta pusketa hori gaztelaniaz sartzen dugu, ez dakigulako nola esan euskaraz. Esan beharrean ‘bihotzaren aurreko aurpegiko miokardioko infarto akutua du’, esaten dugu ‘honek *infarto anterior* bat dauka’. Hizketan hitz teknikoak gaztela-

niaz erabiltzen ditugu eta idazketa guzti-guztia gaztelaniaz egiten dugu.

Osasun langileak alfabetatu beharra aipatu duzu.

Alfabetatze bikoitzaren beharra daukagu. Alfabetatuak gara asko eta asko, baina hizkuntza teknikoan ere alfabetatzea behar dugu. Batzuk Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak gara, eta beraz, alfabetatuta gaude, baina asko eta asko ez. Eta egia da, ez erabiltzearen ondorioz ikasitakoa ere herdoildu egiten da eta hori ere berreskuratu beharko genuke. Bestela, egoera guztiz desorekatua daukagu, badauzkagu langile euskaldunak ez direnak gai klase bat gai tekniko bati buruz euskaraz emateko. Zergatik? Halako espresio bideak ez dituztelako erabiltzen egunerokoan. Gazte askok, eta beharbada unibertsitateko ikasketak euskaraz egin ditu, prestakuntza espezializatua hartzeko garaian gaztelaniara jotzen du. Zergatik? Inguru guztia gaztelaniaz ari delako lanean eta dauzkaten eredu supraespezializatuak ere gaztelaniazkoak direlako. Oraindik

ere, irabazi gabeko puntuak dauzkagu edo jorratu gabeko arloak, eta horietara heldu beharko genuke.

Erronka potoloa da.

Hau ez da Osakidetzaren erronka bakarrik. Duela gutxi irakurri nuen Gipuzkoako Foru Aldundiak ere horixe nahi zuela, eta nire ustez erakunde handi bat baldin badago euskaldundua Gipuzkoako Foru Aldundia izan liteke. Haiek euskara lan hizkuntza moduan erabiltzea dute erronka 2018rako. 2014an Patxi Baztarrikak [orduan Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburordea] esan zuen erronka handiena euskara lan hizkuntza bihurtzea zela. Erakunde askotan daukagu premia eta Osakidetzan ere bai.

Osakidetzak behar besteko arreta jartzen al dio euskaldun profesionalak batzeari?

Tanta bat itsasora erortzen jarri dute diapositiba batean. Inguru oso erdaldu netan baldin bagabiltza (eta ez naiz ari pertsonen bakarrik, ohiturez ari naiz), hor ur tanta bat sartzen baldin badu-



"Orain langileen euskarazko zerbitzuak sortzeko aukera daukagu. Beharra ere bai".

gu disolbatu egiten da. Osakidetzaren Hizkuntza Planean bada euskara lan hizkuntza moduan erabiltzeko aukera, bada euskarazko zirkuituak sortzeko aukera, baina serio hartu beharreko kontua litzateke, plan berezi bat behar genuke. Euskara Planaren barruan azpiatal bat jarri beharko genuke, horri neurri zehatz batzuk jarri, eta neurri zehatzak gauzatzeko aurrekontua ere bai. Lehenik eta behin eskatuko luke eremu jakin batzuk identifikatzea, jakin zein tokitan egin litezkeen euskarazko zirkuituak. 2017an, euskarazko egiaztagiria zeukaten Osakidetzako langileen kopurua %37-38 zen. Azken urteotan gorakada nabarmena izan du eta espero da 2022 edo 2025erako %60 edo 65ekoa izatea. Zaharrenak erretiratzeko doazen moduan eta jende gaztea sartzen ari den moduan hori etorriko da, baina hainbeste itxarotea ere pena litzateke, eta jende horrentzat ere euskaraz egin ahal izateko inguruak sortu behar ditugu. Euskaraz lan egingo duten puntu jakin batzuk sortu, puntu jakin horietako langileak trebatu, ondorengo laguntza eman, eta ebaluaketa egin. Puntu horiek elkartzat osatuko da gure aintzira edo itsasoa.

Halako dinamika aurrera eramateko gogorik sumatzen al duzue langileen artean?

Denetarik dago. Euskarazko zirkuituak sortu daitezkeen eremuak badira. Nik ezagutzen ditut eremu horietako batzuk, langileen borondatez eta euskaldun portzentaje egokia baliatuz ari dira lanean. Ezagutzen ditut zerbitzuak non langileen hiru laurdena euskalduna den. Horrekin batera, ohitu beharko dugu ezagutza maila desberdina daukaten langileak elkarrekin edukitzera. Ohitu beharko dugu elkarrizketan naturaltasunez euskara erabiltzera, eta agian pertsona batek gaztelaniaz erantzutera, eta atzera bueltan euskaraz egitera. Euskaldunok izan dugun arazo handienetakoa da: norbaitek euskaraz ez badu egiten denok gaztelaniara jotzen dugu. Belarriprest deitu diogu orain [Euskaldian]. Bada, ariketa hori naturaltasunez egitera ohitu beharko dugu, eta benetan egitera.

Hurrengo pausoa, eta ez dago hain urruti, itzultzaile automatikoa da. Hemen bertan daukagu itzulpen automatikoa adituak direnak. Testua euskaraz edo gaztelaniaz idatzi, zuzen itzuliko lukeen sistema behar dugu. Garrantzi-

tua da euskaraz idatzitako testua ondo ulertzeko gai izan ez denak ondo ulertuko duen segurtasuna ematea. Pertsona horrek gaztelaniara itzuliko luke itzulpen automatikoaren bidez. Sistema hori izango ez bagenu testuak euskaraz idatziko litzuzkeen langilea gaztelaniaz ere egitera behartuta egongo litzateke. Pazientearen ziurtasuna ezin dugu jokoan jarri. Nik Zainketa Intentsiboetan egiten dut lan, gaixo txarrenekin. Eman dezagun nire testua euskaraz idatzi dudala eta atzetik datorren langileak ez badu ulertzen, zer gertatuko litzateke? Egoera horiek saihestu nahi ditugu, ez dadila arazo iturri izan hizkuntza ez ulertzea.

Hala ere, esan dut, badira puntuak euskarazko zirkuituak egiteko prest daudela esan digutenak. Eredua sortu ahal eta posible dela ikusi ahal, gehiago sortuko lirakeke.

Duela urte gutxi batzuk hau egitea ezinezkoa zen. Nik hemeretzi urte darraztat Donostiako Ospitalean, lehenago beste sei urte egin nituen ikasle, eta orain dela 25 urteko egoerak eta gaur egun daukagunak ez daukate zerikusirik. Aukera hor daukagu, erronka ere bai, eta beharra ere bai. Derrigor baliatu behar dugu egoera. ■

AFRIKAKO HAZIAK BABESTEN

Kenya mendebaldeko Migori konderriko tokiz tokiko laborari taldeak galtzorian zeuden. Egun, laborantza eredu ekologikoa eta elikadura burujabetasunaren bidean, talde berriak agertzen ari dira, hazi indigenak sortuz eta elkartrukatuz. Euren arbasoek mendez mede landu jakinduria eta oinordetzan jaso aberastasun miresgarriak hartu dituzte abiapuntu. Lurraren emankortasuna zaindu eta elikagai osasungarriak sortzen dituzte, politika alorrean nagusi diren pentsamoldeak aldatzeko.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Oskar Epelde

@oskarepelde

Mulo deitu taldean 25 laborari dira. Taldea duela 2 urte sortu bazuten ere, jende asko hurbiltzen ari zaie hazi indigenen eskuragarritasuna eta elkartruketa sustatzen egin duten lanagatik. “Monsanto, Waneka Fund, Nuru, Apolo... Nekazariak eredu horretatik atera nahi ditugu gurekin bat egin dezaten, multinazional horien haziak pozoituta baitaude”, dio Mulo taldeko koordinatzaile George Opengok.

Istorio harrigarriak kontatzen dituzte. Garai batean pertsonak 120 urterekin hiltzen ziren eta orain berriz, 50 edo 60 urterekin. Arbasoen laborantzari eutsi nahi diote, hazien barietate zaharrak landatu eta janari osasungarria lortzeko.

Askotariko barazki eta frutak landatzen dituzte akre $-4.046,856 \text{ m}^2$ - here-neko ortuetan. Okuera Oluoch taldeko kide bat da, tomate indigenak berreskuratu eta haziak sortzen dabil. Nolako osasuna duen erakutsi nahiko balu bezala, korrika joaten da leku guztietara. 1980. hamarkadan ezarri ziren azukre landaketa handiek, bertako basoen bi

herenak suntsitu zituzten, tartean Okueraren lurra. Baina ortugintzan jarraitzen du, azukre landaketaren mugaren beste aldean eta erdi inguratuta bada ere. Bertako tomate barietatea oso gozoa izateaz gain, lehorte eta gaixotasunen aurrean oso gogorra da eta urte asko bizi izaten dela dio Okuerak. Tomate bat lurrera erortzen denean berez ernaltzen da eta astiro-astiro tomate landareak zabaldu egiten dira. Animalien gorotzarekin egindako konposta erabiltzen dute emankortasuna hobetzeko eta bakteriak eta onddoak kudeatzeko behar diren landare sendagarriak ere eskura dituzte. Korrika egin du berriz ortuan barrena belar horiek zeintzuk diren erakusteko.

Harengandik eta taldeko elkartrukeri esker ikasi du ortugintza babesten Evelyn Okothek. Tomate indigena bezala, dholuoeraz *aloth apoth* (zopa afrikarra), *mto*, *boo* edo *dek* moduko barazkiak oso gogorrak eta iraunkorrak direla diote. *Osuga* ere landatu du Okothek etxe ondoko akre hereneko ortuan. *Osuga* su-





kaldean erabiltzeko osagai garratza da, baina oso elikagarria. Munduko Osasun Erakundeak immunoeskasia eragiten duten birusak dauden lurraldeetako pertsonentzat gomendatu du. *Dek* deituak burdina dauka, anemia dutenentzat oso egokia, baita zahartzea ez bizkortzeko ere. Evelyn Okothek taldean denetarik ikasi du, baita “baserriko oiloen osasuna zaintzeko baliatu ahal duen belarra zein den”. *Aloe vera*arekin batera uretan nahastuta ematen die, infekzioak har ez ditzaten, eta jateko artoa eta arraina nahastuta. Oiloak aske daude, bat izan ezik, “Ama nagia da eta umeak galtzen di-tuelako” dio Okothek. Dozenaka arraultza jartzen dituzte eta aise ugaltzen dira, batetik eta bestetik, konposta egiteko lehengaia ematen diote. Haurrentzako janaria beti eskura du eta poliki-poliki finantza arloan ere laguntzen dio ortuak, Okothiren esanetan. Dirua izango ez balu ere behintzat janaria izango luke.

“Hazi indigenak erabiltzen ohitzen bazara Monsantoarenak ez dituzu sekula nahi izango”, dio George Odhiambo taldekideak. Monsanto sistema erabiltzen dutenek baino osasun hobea dutela zailantzarik ez dute, eta horregatik diote merkatuan euren ekoizpenak gero eta eskaera handiagoa dutela.

Odhiambok *marbungu* fruta indigenaren laborantzian oinarritututako ikerketa egin du. Ortuak landu berri dituen *marbungu* sustraiak bizirik geratzen diren baso apurretan bilatu eta jaso ditu. Teilazko egitura bat eraiki du landareek gora egin eta zabal daitezten. Odhiamboren esanetan, landare hauek 20 urtez bizi dira eta etengabe ematen dute bereziki gozoa den fruta. Beste taldekideak ere Odhiambok sortuko dituen *marbungu* hazien zain daude. Fruta honen inguruan talde-ekonomia bat sortzea eztabaidatzen ari dira.

Galzorian dauden zuhaitz indigenak ere babestu nahi dituzte. Odhiambok bere etxearen ondoan zaintzen duen *Soko* deitua esaterako, sabel arazoetarako sendagai eraginkorra da, baita animalien gaixotasunentzat ere, eta gainera, altzariak egiteko egur gogorra da.

Dorkas Awuorren baserrian berriz *Moringa* deitu zuhaitza zaintzen dute. Desagertzeko zorian dago, nahiz eta diabetesa eta minbizia sendatzeko balio duen.

Elikadura burujabetasunaren bidean, dio Dorkas Awuor taldekideak, irabaziak ortuaren ekonomiara itzultzen dira eta

etxean beti janaria gordeta dugunez, ez gara inoiz go-searen beldur. "Soberan da-goena behar dutenei eman, merkatuan saldu edota lagunen artean banatu dezakezu", gaineratu du Teresa Atienok. Urtero bi arto uzta biltzen dituzte. Etxean gordetzen dituzte arto, baba eta gainerakoak. Garai bateko aletegiak, etxe ondoan daudenak, jada ez dituzte erabiltzen, multinazionalen menpeko nekazaritza ereduak haziak pozoitu ez diezaizkien.

Benetan gertaera harri-garriak kontatzen dituzte. Adibidez, Monsantoen ongarriak *strigga weed* belar txarra erakartzen duela eta horrek lurraren emankotasunari kalte egiten diola artoa ereiten denean. Hori dio Ismael Odari Mulo taldeko kideak. Oilo eta behien gorotzarekin prestatutako konposta erabiliz, aldiz, belar horiek ez dira infekztatzen azaldu digu eta artoa indartsuago hazten dela. Odarik hiru esne behi ditu eta, animalien elikadura osasugarriari esker, esne ugari ematen diote eta herriko eskolan banatzen du. Euria etorri berria da eta lurra prest dauka artoa ereiteko. Gainera batata, *kasaba*, kuia eta bertako askotariko barazkiak ekoizten ditu akre hereneko ortuan.

38 urteko Dick Olela Mulo taldeko kidea izateaz gain *Kenya Peasants League*ko (Kenyako Laborarien Liga) koordinatzaile nazionala da. Liga 2014an sortu zuten hainbat talderen artean, Munduko Merkataritza Erakundeak Kenyara hazi transgenikoei sarbidea emateko Nairobi egin zuen bilera salatzeko. Dick Olelaren ortua benetan eredugarria da. Laborantzan oinarrituriko ekologia eskolak sortu nahi dituzte etorkizunean eta jakintzak denon eskura daudela erakutsi nahi dute. Olelak euriari begiratzen dio ortuan zer eta noiz landatuko duen erabakitze-



Goiko argazkian Odhiambo George, matunda marbungu bat eskuan duela.

Erdiko argazkian, bitamina guztiak ei dauzkan Nyamtonglo fruta txikia.

Beheko argazkian, ezkerrean Kenya Peasants Leagueko koordinatzaile nazionala den Olela Dick. Artoaren bertako barietateak erakusten ari dira.

ko. Arto barietate indigena batzuek besteek baino denbora eta ur gehiago edo gutxiago behar dutelako, baina barazki indigenak euri luze eta laburrekin ere sartzen ditu. *Amaranthus* landarea ortu erdian dauka, txapatiak edo ugalia egiteko oso elikagarria baita. Azukrea eta noizbehinka olio bano ez du erosten. Ortuaren aniztasunak lurra mantentzen ere laguntzen du eta ortua gogorragoa da lehorteei aurre egiteko. Zuhaitz indigenak hazten ari da bera ere, *Atumo* zuhaitz gogorra, akaziaren barietate indigenak, galzorian dauden belar barietate berezi batzuk –abereen osasunarentzat miresgarriak direnak–, besteak beste. Elikagaiak eta sendagaiak ematen dizkio baserriak bere buruari. Adibidez, dholuoez *dalasin* deitzen duten erromero mota bat dauka pneumonia eta biriketako gaitzak sendatzeko. Aspaldikoak diren baina gaur egun nekez aurki daitekeen fruta bat ere badu, *nyamtonglo* izenekoa, kolore horikoa eta bitamina mota guztiak biltzen omen dituen.

Datozen urteei begira, ekoizpenei balioa eranstea dute helburu laborari taldeek eta bizpahiru urterako plan estrategikoa egiten dabilta gaur egun. *Aloe vera*, esaterako, gauza askotarako erabil daitekeela jakina da, azala eta orbanak hobetzeko, "baita gizon eta emakumeen emankortasuna hobetzeko ere" dio Olelak. Beste belar mota batek sukarrak horia gaintzeko balio du, kanaberaren zurtoina murtzikatu behar da horretarako. Zerrenda amaiezina da akre erdi batean. Pikondo zahar batekin batera, igokari larrosa berezi bat ere zaintzen du Olelak, bihotz forma duten hosto barkartiak ematen dituen. Bere esanetan, beste barazki guztietan dauden osagai guztiak babesten ditu landare honek. Dholueraz *ndemra* diote. ■

HILDAKOEN TRENEAN KLASEAK DAUDE




Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Derio (Bizkaia), 1902ko apirilaren 27a. Vista Alegreko hilerriak atek zabaldu zituen eta egun Bilboko hilerri nagusia da. XIX. mendearen bukaeran, beste hainbat tokitan bezala, geroz eta biztanle gehiago hartzen zituen hirigunean ez zegoen hildakoentzako tokirik, Abando, Albia, Begoña eta Mallonako hilerriak gainezka zeuden, eta Bilbotik hamar bat kilometrora, Derio eta Zamudio arteko eremu hura aukeratu zuten hildakoak ehortzeko.

Hilerri berriak abantaila bat zuen gainera; 1895 urteaz geroztik Lezamako ferrokarrilak lotzen zituen hiria eta Derio. Lehen urteetan zaila izan zen trenbidea eraikitzeko inbertsioari buelta ematea. Orduan landa gunea zeharkatzen zuen trenak eta bidaiari nahiz merkantzia gutxi eramaten zituen batetik bestera. Hilerri berria inauguratuta, merkantzia berria negozioa pizteko aukera ezin hobea zen. Baina hasierako urtetan ez zioten zukurik atera. Hilkutzak merkantzia bagoietan eramaten zituzten eta 11 pezata kobratzen zituzten kutxako. Senitarteko eta gertukoentzako txartelak ere ez ziren merkeak eta, hala, bizidun gehienek oinez egiten zuten hilerrirako bidea.

1910ean Lezamako Ferrokarril Konpainiak eta Bilboko ehortzetxeek bat egin zuten, hileta agentzia berria sor-



Bilbotik Derioko hilerriera zihoan "hildakoen treneko" lehen klaseko bagoia.

tu eta zerbitzu egokiagoak eskaintzeko. "Hildakoen tren" berezia sortu zuten –herritarrek hala esango zioten–, 1950eko hamarkada bitartean martxan egongo zena. Hiru motatako bagoiak zituen. Mariano del Corral tren enpresario aitzindariaren tailerretatik ateratako bagoirik dotoreena lehen klasekoa zen. Beira esmerilatuak zituen, eta egur landu finak. Hilkutxa bakarra eramaten zuen eta gertukoentzat egongela eroso zeukan. Bigarren klaseko bagoiak bi

hildakorentzako tokia zuen eta senitartekoek ere haiekin batera joateko aukera zuten, nahiz eta aurrekoak adinako luxurik ez izan. Hirugarren klaseko bagoia gertuago zegoen ohiko merkantzia bagoietatik. Hamar kutxa sartzen ziren bertan, baina hurbilekoek ahal bezala moldatu behar zuten hilerrira iristeko.

Heriotzak denak berdintzen omen gaitu, baina "hildakoen trenak" Deriora iritsi bitartean behintzat, ederki bereizten zituen. ■



PERUKO KULTURA MINISTERIOA

Klima aldaketari buruzko 3.800 urteko murala

Vichamako (Peru) aztarnategian ia hiru metroko murala aurkitu dute, giza aurpegiak, sugeak eta hazi antropomorfo bat dituen. Irudiok interpretatuta, "emankortasunaren murala" esan diote eta, Caral gune arkeologikoko zuzendari Ruth Shady arkeologoaren esanetan, "erliebe horiek klima aldaketak giza populazioan dituen eragin katastrofikoak

gogorarazten dizkigute". Duela 3.800 urte klimak izandako aldaketak eragin handia izan zuen mundu osoko zibilizazio askotan; Caralekoaren amaiera ekarri zuen lehorteak, eta bertako artistek harrian zizelkatuta utzi zuten gertatutakoa. Mural honek, zehazki, nekazaritza produkzioan izandako gainbehera du hizpide. ■

Pinu azkarraren koloreak



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

ARGAZKIA: REINHARD SCHOENAUER



Pinuaren panorama belztu da, batez ere insignis pinuarena (*Pinus radiata*). Pinu beltza edo pinu azkarra ere deitzen zaio. Pinu beltza, izan ere, bera hazi izan den mendien paisaia belztu egin baita; urte guztiko sasoi guztietan beltzak dira pinu horren pinadiak. Urruti-urrutitik urdinak diren itxura egiten dute, baina hori ilusio bat da, lilura bat; ispilatze baten antzekoa da; urrutira, izan ere, mendi eta zuhaitzi guztiak urdinak dira. Begieran duzun paisaiari begiratu eta urrunen den lurraldea urdin ikusiko duzu, beti. Horrexegatik lur sail ttiki batean handiagoa den itxura sortu nahi baduzu, jarri mugan landare urdinak, benetan urdinak diren zuhaitzak, adibidez.

Urdinaren itxura eginagatik ere, are gehiago belztu da pinu beltzaren panorama. Belztu, baina baita urdinu

ere. Uhertu eta turbustu zaio bizimodua pinu beltzari. Beltzari urdinu zaio etorkizuna. Izan ere, urdintzea akabera da. Urdintzen dira ilea eta bizarra. Urdintzen da ogia lizunetan loratzen edo mutxitzen denean. Urdintzea deitzen zaio grisa jartzen denari.

Datorren margotik datorrela, gristen dena bukatzen hasten da, akaberarantz doa. Nor direnetan grisa hitsa ere bada. Histu da pinu beltza. Goibeldurik izango dira bere ama eta amona pinuak, beltzak haiek ere. Beltza gristu. Ahuldu, eskastu... Eskasten ari da pinu beltza. Eskastu desagertu ere bai baita. Eskastu hil ere bai baita. Eskastu galdu ere bai baita. Eskastu desagertu ere bai baita. Eta ezin eskastuzkoa, saihetsezina, nahitaezkoa, halabeharrezkoa.

Berdea, beltza, urdina, grisa; kolore mordoxka bere egiten ari da pinua, pinu

beltza. Baina gorriak zain ditu. Gorriak eta gorriagoak ezagutu eta igarotzeko dago oraindik. Pinu beltzak gorrituta ikusten ditu aldameneko pinuak, bere buruari ezikusia eginez. Izan ere, ederki asko daki, aspaldi, aspaldi hasi zela bere kastaren, eta tartean bere gainbehera. Badaki lurreko ondoak eraso ziola, bere amari eraso zion bezala. Eta badaki azkenaldian airez etorritako beste ondo batzuk hostajea erasotzen ari zaizkiola, hasieran hostoetan orbantxo batzuk sortuz, gero hostoaren buelta guztia itoz eta, amaitzeko, hostoa gainetik kenduz. Bere bihotzeko hostoa, jakia sortzen dion hostoa, zeina gabe hiltzea besterik geratzen ez zaiola dakien hostoa. Historik gabe eraitsi egingo da, eta ahuldutako egurrean ondo zuri eta horiak loratuko dira, pinu azkarraren ortzadarra borobilduz. ■

Jakoba Errekondori GALDERA

San Joan bezperan herrian zutik jartzeko enborra prestatu nahi dugu, usadioak mantenduz. Egun alertze enbor bat erabiltzen dugu baina ahultzen hasia dago. Zein zuhaitzen enbor komeni zaigu prestatzea urte askoan irauteko? eta noiz moztu beharko litzateke egurra gogor mantendu dadin? (Amaia)

Herri bakoitzean usadioa desberdina da. Toki batzuetan lizarra, bes-teetan haltza, baita itsas-pinua, edo alertzea zuek bezala. Alertzea bera ez da txarra, ahal baduzute bereari eutsi. Noiz botatzeko, garrantzitsuena iraupen soila bada ilbeheran eta izerdi gutxiena duenean, urtarrean adibidez.

EUSKAL HERRIKO
HAZIEN SAREA

Gaztainaren ezagutza berreskuratzeko jaia Izkin



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: EUSKAL HERRIKO HAZIEN SAREA

1996an sortu zuten Euskal Herriko Hazien Sarea teknikari, nekazari eta Bizkaiko EHNE sindikatuaren inguruan zebiltzan hainbat kidek. 22 urteko ibilbidean hiru alorretan aritu da batez ere lanean taldea, Joseba Iburgurengoitia kideak azaldu duenez: "Hazien inguruko ikerketa, kontserbazioa eta dibulgazioa dira proiektuaren hanka nagusiak". Izkiko (Araba) parkean 2010 inguruan hasi zuen ikerketa taldeak, Arabako Aldundiaren babesarekin. Orduan hasi ziren bertako gaztainondoaren inguruko lanketa egiten, eta lanketa horren parte izan da urriaren amaieran Izkin ospatu duten Gaztainaren Festa ere.

Gaztainondoaren galera

"Gaztainondo gutxi dago Araban, eta gehienak Gorbeialdean eta Apinaizen, Izki parke inguruan", dio Iburgurengoitiak. 300 urte baino gehiago dituzte bi gune horietako landaketek. Zuhaitzak gure historian izan duen garrantziaren adibide da Euskal Herriaren dugun gaztainari lotutako toponimia zabalak: "50.000 urte baino gehiago daramatza gure inguruan gaztainondoak, eta euskaldunen biziraupenerako elikagai oinarritzak izan da mendetan".

Apinaizen urriaren 26 eta 28 bitartean ospatutako Gaztainaren Jaian helburu nagusia gaztainondoaren berreskurapenerako ezagutzak zabaltzea izan da. Lehenagotik martxan zuten proiektuan, Izkiko gaztainondoaren 13 hektareetatik bat aukeratu zuen Hazien



Sareak, proba egin eta gaztainondoaren kudeaketa eredu bultzatzeko: "Hilzorian dago gaztainondo hektarea hori, besteak beste, azken bost hamarkadetan ez delako inausketa eta mozketarik egin". Sarearen proposamena da hektarea horretan gaztainondoaren berreskurapenerako kudeaketa eredu bultzatzea eta hura zabaltzen joatea.

Festa, ikasteko bide

Extremaduratik iritsitako teknikari bat izan dute Gaztainaren Jaian gonbidatu berezi. 500 hektarea gaztainondo kudeatzen dituzte han, eta eredu horren

inguruan gehiago ikasteko baliatu dute teknikariaren bisita. Hiru egunetan hamaika ekimen izan dituzte Apinaizen: gaztaina lehiaketa, bertako eta kanpoko bariatateen erakusketa, gaztaina kulturaren inguruko ikastaroa, dastaketa, gaztainondoetatik ekoiztutako produktuak..."

Hazien sareak aurrera begira ekintza gehiago antolatuak ditu gaztainari lotuta: "Urtarrilean eta martxoan ikastaroak egingen ditugu gaztainaren ezagutza, kulturari eta praktikari begira: inausketak, landaketak eta abar nola egin ikasiko dugu". ■

azoka

NOLA SALDU GAUZAK AZOKAN: Sartu argia.eu/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" botoia. Bost minutuan jar daiteke edozer salgai Interneten, denen eskura.

ARGIA JENDEARENTZAT MUSUTRUK: ARGIAko komunitatearen arteko harremanak indartzeko, besteei zerbait emateko aukera dugu. Ostegunero 10:00etan izaten da txupinazoa: ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun gaiak publiko egiten diren uea.

www.argia.eu/azoka · t @argiaAzoka

Era guztietako **salgaiak** aukeran: ikus-entzunezkoak, mahai-jolasak, argitalpenak, laminak eta mapak, gorputzarentzakoak, bitxiak, eskulangintza, jantziak...


87
salgai

Pareko mahai-jolasa

Mahai-jolas dibertigarri eta sortzailea. Bi rol ariko dira jokoan: marrazkilaria eta zuzendaria. Zuzendariak, irudian ikusten duena deskribatuko du, hitzez. Marrazkilariak paperean marrazkia egingo du, entzuten dituen deskribapenei jarraituz. Ea emaitzak zer zehaztasunez lortzen duen jatorrizko irudiaren ezaugarriak izatea!

Nori zuzendua: 6 urtetik gorako jokalarientzat, 3-8 lagunen artean jokatzen.

Egilea: Txatxilipurdi elkarte.




15 euro

Azaroaren 8an, 10:00etan...

ARGIA Jendearentzat musutruk jarriko ditugu argia.eu/azoka webgunean. Ez da zozketa, azkarren ibiltzen denak eramango ditu!

34
gai
musutruk



Bizi Baratzea lamina 33 eta 34

Asiskok eta Zaldierok eginiko lamina originalak. Neurriak: 35 x 50 zm.

Kolunpioa

Egur eta sokazkoa, pieza guztiak ditu.

ARGIAREN KOMUNITATEA KONTATZERA GOAZ

Zenbat gera?



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Lau, bat, hiru, bost, zazpi... Tabernako barra ertzean inor kantari hasi ezkerok gehienok inoiz jarraituko genuen abestia. Letra horrekin hasi dugu elkarrizketa, segidan kontatu behar zidatena ulertzen has nendin.

Zenbat izango ginen azken mende honetan ARGIAren jarraitzaile? Aurreneko Zeruko Argia hura martxan jarri zuten haiek zer funtzionamendu eredu ote zuten buruan? Zein helburu, amets proiektu honekiko? Noiz eman zitzaion hasiera harpidetza formulari? Zenbat harpidetza joan eta etorri ote dira ehun urteko bide luze honetan? Galderaz bete zait burua bat-batean, baina zentratu beharra daukat gaurko egoeran.

Orain arteko kalkulak ez dira guztiz egokiak izan, eta “zenbat gera?” galderari erantzuna emateko prozesua jarri da martxan ARGIAren. Esan dut orain arteko neurketak ez direla guztiz zuzenak, ekuazioa desegokia zelako: helbide bat = harpidedun bat. Baina galdetu zure buruari, etxean lagun bat baino gehiago bazarete, sarri teilatupeko denak sentitzen direla harpidedun. Eta pentsa harpidetza gaztetxe batekoa bada, edo taberna batekoa, edo kultur-gune bate-



koa. Erantzuna, askotan, ez da izaten “ni harpidedun naiz”, “gu harpidedun gara” baino. Orain arteko kalkulua “ni” horretan zentratu da nolabait esateko, edo “bera”-n. Bakarrean. Baina nola neurtu “gu” edo “beraiek” hori? Neurketa egoki egiteko beharko luke ekuazioak helbide bat = X harpidedun izan.

Noski, X identifikatzea guretzat zailagoa da modu honetan. Beraz, erantzuna ematea zuei, harpidedun guztioi dago-kizue. Honezkerok jaso duzue laguntza eskatuz bidali dizugun eskutitza, aurreko astekariarekin batera. Hiru bide daude erantzuteko: zenbatgera@argia.eus helbidera idatzi, ARGIAko egoitzara deitu 943 37 15 45 telefonora, edo eskutitza bidali egoitzaren helbidera.

Dagoeneko hasiak gara erantzun batzuk jasotzen eta oso gustura irakurri edo entzuten zaituztegu; askok animoak edo eskerrak emateko aprobe-tzatzen baituzue, zuen iritziak guri ailegatzeko.

2019ko uda aurretik X identifikatuta izatea aurreikusten dugu eta oporren aurretik harpidedunen zenbaki benetako publiko egitea da helburua. Denok harrituko gaituen zenbakia, ziur. ■

Gabonetako opariak: kontsumotik hartu-emanera

ARGIAren Azokak aukera ematen du edozein erako gauza ARGIA Jendearen eskura jartzeko; izan diru truke, izan musu-truk. Gabonak garai aproposa izan daitezke ganbarak hustu, eta dagoeneko erabiltzen ez diren jostailu, arropa, eta gainerakoak besteen eskura jartzeko. Zergatik ez eman beste bizitza bat norberaren etxean preziatuak izan diren gauzei? Eman edo hartu, azoka.argia.eus helbidean.

ARGIAren egutegia saltzea, kolektiboentzat diru-iturri

Indartu dezagun indartzen gaitue-na, horra ARGIAren lemetako bat. ARGIAren egutegia, egunero orri bat kentzen zaion hori, salgai da dagoeneko. Nahi al duzu berau saltzen parte hartu? 10 egutegitik gora saltzen duten kolektiboek salmentaren %10 eskuratuko dute, eta 25 egutegitik gora saltzen dutenek %20 (9 euro da egutegi bakoitzaren prezioa). Ikastetxe askoren diru-iturria da dagoeneko, ikasbidaiei kostuak leuntzeko. Baina berdin izan daiteke erakargarri gainerako kolektiboentzat: euskaltegi, gaztetxe, eragile sozial... Interesa duenak idatzi marrieta@argia.eus helbidera edo deitu ARGIAra: (0034) 943 37 15 45.



Proposatutako ARGIA Sarietarako hautagaiak

Bidali oirureta@argia.eus helbidera alor hauetarako hautagaiak: ikus-entzunezkoak, irratia, internet, prentsa, komunikazio ekintza eta merezimenduzkoa. ARGIAko lantaldean osatzen dugu epaimahaia, eta zuek bidalitako hautagaiak zuzenean zerrendara sartzen ditugu.

SMAC

KATALUNIAKO MUSIKARI AKTIBISTEN SINDIKATUA

“Musikarien gehiengoari laguntzeko sortu gara, ez talde handiei”

“Musikariena oso mundu indibidualista da”. “Sindikatuaren formula zaharkituta dago”. Halako uste zabalduen kontra egiteko asmoz SMAC osatu dute ehundik gora lagunek, Kataluniako Musikari Aktibisten Sindikatua. Oinarrizkoak bezain ez-ohikoak diren baldintzak aldarrikatzeko elkartu dira, euren eskubideak defendatzeko. Bat nagusiki: kontratatuak izateko eskubidea.



Lander Arretxea Berezartua

@larretxea

ARGAZKIA: SMAC

Musikariak dira Albert Costa eta Pablo Schvarzman. Lehenak tronboia jotzen du The Gramophone All Stars Big Band eta Compota de Manana taldeetan; bigarrenak aldiz, Seward taldeko gitarra jotzailea eta elektronikaren arduraduna da. Musikari lanak bakarrik ez, eragile eta borroka batek ere elkartzen ditu biak. Duela bi urte sortu zuten SMAC (Kataluniako Musikari Aktibisten Sindikatua) sindikatuko kide aktibo dira. Besteak beste, hainbat udaletan musikariak kontratatuzko baldintza zuzenak zehazten dituzten mozioak onartzea lortu dute. Haiekin izan gara euren lan-ildoak, egiteko moduak eta aldarrikapenak ezagutzeko.

2016ko Primavera Sound jaialdiaren atarian hasi zen dena...

Pablo Schvarzman: Taldeekin birak egin eta beste batzuekin eszenatokiak konpartituz, topo egin dugu antzeko kezka eta arazoak ditugun musikariok. Harreman horietan hasi zen ideia

garatzen, eta halako batean, askotan hitz egindakoak martxan jartzeko garaia zela erabaki genuen, hasi behar genuela pauso sendoagoak ematen. Asanblada antolatu eta ahal bezainbeste musikari gonbidatu genituen. Izan zitekeen beste edozein plaza ere, baina ikusgarritasuna eta zentzua emateko aproposagoa zen musikarekin zerikusia zuen leku bat aurkitzea. Primavera Sound jaialdiaren sarrera parean eseri, eta hantxe egin genuen lehenengo asanblada. Oihartzun handia izan zuen ekimenak eta kide asko hasi ziren deitzen hainbat problema jakinarazteko. Azkar hasi behar izan genuen lanean eta arazo jakinei erantzuten, eta gero, denbora gehiago izan dugunean, orduan eman dugu sindikatua sortzeko pausoa.

Zergatik sindikatua eta ez, demagun, elkarteak?

Albert Costa: Berehala antzeman genuen jazz musikarien edo bandurria jo-

tzen dutenen elkarte bat sortzeak ez zigula balio; ez genuela festibal bat eta hitzaldi pare bat antolatzen dituen elkarteak izan nahi. Klase sindikatu bat gara, hori delako musikari langile guztien eskubideengatik borrokatzeko modu onena. Horrela modu ofizialagotan ere eragin dezakegu: patronalarekin bildu eta gauzak erabakitzen dituzten pertsona edo erakundeekin zuzenean hitz egin.

P. Schvarzman: Gaur egun, ehun afiliatu baino gehiago gara, eta hala ere funtzionamendua ez da askorik aldatu. Asanblada da gure oinarria, bertan erabakitzen dugu zeintzuk izango diren gure lan-ildoak. Abokatu bat dugu gure lan-ildoak. Abokatu bat dugu gure lan-ildoak. Ez dugu profesionalizatutako sindikatu bat izan nahi, ezta deskontu txartelak pilotatzeko afiliatzen diren pertsonen taldea ere.

Zer da musikari aktibista bat?

Asanblada gisa funtzionatzen du SMAC sindikatuak eta denbora gutxian musikari ugari egin du bat proiektuarekin.



A. Costa: Hasieratik erabaki dugu politikoki inplikatu den sindikatu izango garela, ahal beste alorretan. Urriaren 3ko greba orokorrean, adibidez, parte hartu genuen. Plazaratu ditugu hainbat ohar ere, besteak beste, urriaren 1eko errepresioaren harira; eta adierazpen askatasunaren gaian, No Callarem kolektiboaren parte aktibo gara. Funtsean gizartean eragin nahi duen sindikatu da gurea, eskubide laboralei zein politikoei erreparatzen diena. Horregatik diogu aktibistak garela.

Musikarien artean arazoak modu indibidualean konpontzeko joera omen dago. Zuek ordea kolektibotik eragiteko bidea hartu duzue.

P. Schwarzman: Bitxia da, arteen kasuan, pintoreek edo eskultoreek adibidez, bakarrik egin dezakete lan, eta normalagoa litzake indibidualtasunerako joera. Baina guk taldeka egiten dugu maiz, eta hala ere ez da hori aldatzen. Aktoreek, adibidez, lortu dute haien lan-hitzarmen

propioa, eta guk ez. Ez dakit zergatik den hala, baina argi dago joera horrek ez digula batere mesederik egin.

A. Costa: Baliteke zerikusia izatea nork bere burua musikari gisa onartzeko trabekin. Bai gure konplexuengatik, baina baita besteen onarpen faltagatik ere. Niri etengabe galdetzen didate musikarena afizioa edo ofizioa den. Zure burua profesionaltzat izan arte, zaila da zure eskubideei erreparatzea, eta zer esanik ez sindikatu batean edo bestelako formulatan pentsatzen hastea. Profesionalen eta amateurren arteko marra hori fina da. Noiz da norbait profesionala: asko jotzen duenean? Ikasketak dituean? Debate hori ez zaigu interesatzen. Musikari gisa, gehiago edo gutxiago, lan egiten duen langilearen eskubideak defendatzen ditugu.

Musikariak kontratatu egin behar direla da zuen aldarrikapen nagusia; ez dela nahikoa faktura bat eskatzea.

A. Costa: Gaur egun indarrean dagoen araudian oinarritzen gara. 1435/1985 errege dekretuaren arabera kontratatzen duenaren eta musikariaren arteko harremanak laborala izan behar du. Horrek esan nahi du udal batek edo areto batek kontratatzen bazaitu, altan eman behar zaituela, gizarte segurantzako gastuak bere gain hartuz. Kasuen %1ean soilik betetzen da hori. Horren ordez, faktura bat eskatzen digute. Horretarako, edo autonomotan eman behar dugu izena, edo enpresa bat sortu behar dugu gure burua kontratatzeko. Bi aukera horietan galtzen dugunak gu gara.

P. Schwarzman: Badaude batzuk autonomo izateko aukera aldarrikatzen dutenak, nahiz eta, gaur egun, erabat legezkoa ere ez den. Guk aldiz, nahiago dugu kontratatuak izan. Funtsean, autonomoak babesgabeago daude, eta gainera, ezin dira sindikatu. Tranpatia da gainera: lan esparru gehienetan autonomo batek erabakitzen du noiz egingo

duen eskatu zaion lan hori; musikari batek aldiz, ordu eta toki jakin batean egon behar du, bai ala bai. Askatasun hori ez izatea bat dator kontratatuen ezaugarriekin, eta ez autonomoenarekin.

Diru asko mugitzen duten taldeak eroso daude enpresa egitura bat sortuta?

P. Schvarzman: Talde batzuk bai, aktibitate oso handia dutelako eta bira handiak egiten dituztelako. Mantendu dezakete enpresa egitura bat. Kalkulu horiek euren katxean sartu eta enpresa gisa funtzionatzen dute, baina ez du denontzat balio. Norbaitek langile izateari utzi nahi badio eta bere enpresa sortu nahi badu, ez dugu problemarik. Baina zer gertatzen da halakorik egin ezin dutenean? Askok intermitenteak gara edo talde askotan jotzen dugu. Gure kasuan, beste edozein sindikaturi bezala, ez gaitu kezkatzen enpresa handien egoerak. Talde handi eta ezagunen egoera ez da gure ardura, ez gara sortu haiei laguntzeko. Guk babesik gabe dagoen musikariaren gehiengo zabal horren eskubideak aldarrikatzen ditugu.

Bateragarria da proposatzen duzuen kontratazio bidea areto txikien errealitatearekin?

A. Costa: Areto txikiarekin moldatzeko formulak badaude, eta bat izan daiteke sindikatuak haiekin adostea zer eskaini dezaketen ordainetan, dirutan ez bada, bestelako baldintza edo zaintza-lanetan. Egia da sala asko daudela ezin diotenak aurre egin kontratazioaren formulari, baina sala txiki horien egoeraren aitzakian, udalek, jaialdiek eta sala handiek ere nahi dutena egiten dute. Ordaintzeko aukera baduenak ezin dio legea bete zeari uko egin etekin gehiago ateratzeko, ez gure eskubideen kontura.

Erakunde publikoek izan behar lukete eredu, beraz...

P. Schvarzman: Espainiako Estatuan lan gehien ematen dutenak udalak dira: herrietako jaiak, diruz lagundutako festibalak eta lokal publikoen programazioa. Haiek izan behar dute eredu. Sindikatuen bitartez eragiteko errazena ere haiek dira. Alderdi politikoeekin saiatu gara mozioak proposatu ditzaten eskatzen, herriz herri, legea aplikatu dadin, kontratazioa bermatuz. Herri eta hiri batzuetan lortu dugu dagoeneko. Kontua da egitura burokratiko oso bat

» **ALBERT COSTA:**
“Zure burua profesionaltzat izan arte, zaila da zure eskubideei erreparatzea”

» **PABLO SCHVARZMAN:**
“Ez dugu profesionalizatutako sindikatu bat izan nahi”

dagoela egiteko modu batzuetara ohitu dena, eta hori ez dela aldatzen legealdi batetik bestera. Erresistentzia asko daude.

Manager, sustatzaile eta abarrek begi onez ikusten dituzte zuen proposamenak?

A. Costa: Oro har, ez. Oso urduri jartzen dira, ikusten dutelako haien pribilegio batzuk kolokan jar daitezkeela. Bada go industria bat, gauzak egiteko modu alegal honetan eraiki dena, eta ez dituen musikariak aintzat hartzen. Industriaren oinarria musikaria da, eta hala ere, badirudi gu garela azkenak. Noski, behar ditugu aretoak, antolatzaileak, eta gure lana sustatzen lan egingo duen jendea, baina hori guztia bateragarria izan behar da gure oinarrizko eskubideekin.

Diru-laguntzetan ere jarri duzue fokua.

A. Costa: Bartzelonan bertan diru asko jasotzen duten aretoak badaude. Programazioagatik jasotzen dute, nahiz eta gero ez duten haiek zuzenean programatzen. Dioguna da, diru-laguntza publikoa jasotzearen truke, baldintza batzuk bete behar lituzketela: genero oreka, gutxieneko zaintza, baita musikariak behar bezala kontratatzea ere.

Marka komertzialek eszenatokietan duten presentzia salatu duzue. Badago hori aldatzerik?

A. Costa: Badira festibal batzuk lotsagarriak direnak: eszenatoki osoak Estrella Damn edo Coca-Colaren iragarria dirudi. Gaur egun, mundu guztiak argazkiak eta bideoak atera eta sarera igotzen ditu. Zuk hori ikusten duzunean

ikusten duzu talde bat atzean markaren logoa duena. Hori, azken finean, iragarri bat da; doan egiten duzuna, eta zure onarpenik gabe. Negoziatu behar dela aldarrikatzen dugu, eta kontratuak hori ere zehaztu beharko lukeela. Nire kasuan, enpresa asko daude ordainduta ere onartuko ez nituzkeenak, ez dudalako nire irudia haiekin lotu nahi. Ezetz esateko aukera izan beharko genuke.


P. Schvarzman: Guk eszenatoki bateko logoa estaltzea erabaki genuen jaialdi batean, eta talka handia izan genuen antolatzaileekin. Taldea handia bada, bestelakoa da kontua. Pepsirekin hitzarmena zuen abeslari ezagun batengatik jaialdi oso bateko Coca-Colaren kartelak estali zituzten behin. Baina hark zuen negoziazio botererik ez dugu guk, barka ez behintzat. Baina elkartzten bagara, eragiten saia gaitezke. Horretan ari gara.

Egile eskubideen gaia ere jorratu duzue?

A. Costa: Egia esan, ez diogu gai horri heldu. Ez gara talde handiegia eta zaila da dena iristea. SGAEekin kritikoak gara, hala ere. Bere arazoetako bat da salmenten arabera bozkatzeko delak. Guk nahi genuke sistema bat birpentsatuko duena egile-eskubideak nola kudeatzen diren, pertsona bakoitzak boto bat izango duena. Debatea konplexuagoa da SGAE eta copyleft aukeren artean hautatzea baino. Pentsa, pertsona batzuk konposatzaileak bakarrik dira, eta hori da euren diru iturri nagusia. Uste dut nahi duenak aukera izan behar duela bide horretatik dirua irabazteko, baina modu gardenean izan behar luke.

Amaitzeko: zein bide ditu sindikatu batek aipatu dituzuen helburuetara hurbiltzeko?

A. Costa: Askok daude. Sare sozialen bidez eragitera ohitutako belaunaldia gara, eta egia da, hor presioa egitea eraginkorra izan daiteke. Gu ahalegintzen gara zabalagoa den zerbait egiten: manifestazioak, piketeak, behar den edozer. Gehien egiten ari garena da jendearekin eta erakundeekin biltzea gure ikuspegia azaltzeko. Ia mundu guztiarekin ari gara biltzen: patronala, alderdiak... Hala ere, epe luzera eraginkorra da kontzientziazioa eta aldarrikapena zabaltzea. Helburu hauek gehiengoaren aldarriak izatea nahi genuke. ■



Julen Agirre Egibar

Arkitektura ez egonkorak



Xabier Gantzarain
@gantzarain

CENTROA II (2015)

Arkatza paper gainean. 70,5 x 101 x 3,5 cm

Saiatzen naiz artisten lana ahal bezain hotz eta zorrotz ekartzen orrialde honetara, baina beti ezin da. Batzuetan, zorionez, zeure bizitzara sartzen dira artelanak, eta haurtzarora zaramatzate ezustean. Eta haurtzarora, familia, genealogia bera, arraroa suertatzen zaizu bat-batean, ez egonkorra.

Aitaren aita okina zen, baratzea zeukan etxe ondoan, oiloak. 1899ko urriaren 30ean jaio zen Ikaztegiatan, artzain bidali zuten 9 urterekin, Azkoitian okinak behar zirelako iritsi omen zen herrira. Lur zati bat erosi nahi zuen hil aurretik.

Lur zati hartan oilategia jaso zuten seme-alabek. Altzari denda ireki zuten

gero, oilategia biltegi bilakatu zen, baimenik gabe eta presaka jasotako eraikin izugarri bat, adreiluak bistan zituena alde batetik, teilatuan putzuak, barandarik ez balkoietan, hormigoizko blokeak beste aldetik, marrazki honetakoak bezalakoak. Euriarentzat zela esan izan ziguten beti, angeluei esker urak erraz egiteko behera. Barraskiloak egoten ziren irtenguneen azpian. Arkitekto batek esan dit estetikoa dela erabat; ez funtzionala, ulertu dut. Eta ni pareta haiekin gogoratu naiz, tantaka erpinetatik, beti umel. Hantxe eman genuen gure haurtzaroaren zati handi bat, biltegi zikin hartan, paradisuan.

Ez naiz akordatzen aitonarekin. Oso txikia omen nintzen Errege egunez bilobei goxokiak banatu ostean ohean etzanda hil zenean. Hor amaitzen da nire abizena.

Biltegiari ez zioten izenik jarri. Ez izenik, ez barandarik, ez teilaturik, beti zegoen bukatzeko. Eta inoiz bukatzen ez.

Erakusketa ikusi nuenean Egian, pentsatu nuen artistak marrazteko modukoa zela, kezkarria, arraroa, bere sendoan ez egonkor. Etxe guztiak bezala. Berak asko jakin gabe, nire artista maiteen zerrendan sartu zen Julen Agirre Egibar (Azpeitia, 1984ko uztailaren 27a). ■

TOMASITA QUIALA ETA ARACELI ARGÜELLO

“Payadorea beti izan da ahotsik ez daukanaren ahotsa”

Nazioarteko Inprobisatzaileen Biran, atzerriko bi inprobisatzaile izan ditugu urriaren 9tik 14ra: Tomasita Quiala (Kuba, Arroyón de Flores, 1961) repentista betetera da, Kubako ezagunenetako bat, eta Euskal Herrira hirugarren aldiz etorri da. Itsua da jaio zenetik, eta parean duenari eztena nola sartu berehala asmatzen du. Araceli Argüello (Poza del Molle, 1995), berriz, payadorean belaunaldi berriko ordezkaria da. Matea edateko ontzia lagun etorri da Euskal Herrira, lehenengo bider.



Dabi Piedra

Nola hasi zineten inprobisatzen?

Tomasita Quiala: 22 urte bete baino hilabete bi lehenago hasi nintzen, kasualitatez. Kanean nindoala, repentista bat entzun nuen beste bat iraintzen. Artean lo zegoen nire poeta sena, baina esnatu egin zen eta iraindutako repentistaren alde inprobisatzen hasi nintzen han bertan. Hurrengo astean leku beretik pasa nintzenez, guatekea antolatua zuten niretzat, Peña Campesinako zuzendaria nirekin abestu nahi zuen. 35 urte geroago hemen nago. Gaur egun, badaude repentisten eskolak. Baina eskola horietan ikasten dutena agertokian ikasi behar izan nuen nik, egunean-egunean joaten nintzen ikusten zer zegoen ondo eta zer ez.

Araceli Argüello: Argentinan, zaldien inguruko lanbideekin lotuta dago payadorean tradizioa. Nire aitona, aita eta neba zaldunak ziren. Haiek ikustean, nik aurrez prestatutako bertsoak botatzen nizkien, betidanik izan dut payadore

izateko gogoia. Bost urterekin galdetzen ziguten nagusitan zer izan nahi genuen eta nik esaten nuen payadore izango nintzela, nire erreferentea Marta Suintzen. Pixkanaka, milongak kantatzen eta gitarra jotzen hasi nintzen. Nire probintzian ez zegoenez payadore askorik, autodidakta naiz.

Quiala, zu inprobisatzaile profesionala zara Kuban. Nolako da zure egunerokoa?

T.Quiala: Hau da nire ogibidea orain dela 32 urtetik. Repentistak, batez ere, arituaz ikasten du: repentisten eskola oholtza da. Horretarako, komeni da ondoan duzun repentista zure mailakoa izatea. Repentismoa altxor baten modukoa da, baina ezkutuan gordetzeak ez du merezi. Alegia, altxor hori munduari erakutsi behar diogu, denek izan dezaten distira hori jasotzeko aukera. Bere artea mundu guztiarekin partekatzea helden den inprobisatzailea, horixe izango da arrakastatsua.

Landa giroari lotutako tradizioak dira payada eta puntu kubatarra. Hiritartzera jo dute azken urteetan?

T.Q: Puntu kubatarra hirietara zabaldu da, jakina. Hala ere, egia da landa girotik datorren tradizioa dela, guajiroaren bizimoduarekin lotua. Baina eskoletan zein antzokietan errespetatu, zaindu eta landu egiten dute, Kubako gizartearen geruza guztietara helden da.

A.Argüello: Payada hasi zenean, landa giroari lotua zegoen, baina hirietan ere bazegoen. Adibidez, Gabino Ezeiza Alderdi Erradikalaren aldeko payadorea zen. Payadorea beti izan da ahotsik ez daukanaren ahotsa: Argentinako historian gautxoak beti baztertutako figurak izan direnez, payadorea beti egon da haien alde, eta horregatik, gautxoek eta payadorean kulturak elkarri oso lotuta daude, horrek landa eremura eramandu inprobisazioa. Dena den, azken urteetan, hirietara migratzeko joera dago, baina gautxoek tradizio eta balioak

ahaztu gabe. Hiritartzeak formakuntza hobe ekarri du, payadoreen artea mailarik gorenera eramateko.

Kuban, inprobisazioak lekua du telebis-tan.

T.Quiala: Telebista nazionalean repentismoa ematen duten saioak ditugu, *Palmas y cañas* oso ezaguna da, igandero arratsaldeko zazpitan audientziaren zati handi bat bereganatzen du. Gainera, orain zorioreko gara Kuban, UNESCOk Gizateriaren Ondare Inmaterial izendatu baitu puntu kubatarra. Lorpen handi horri esker, urte luzez jardun garenoin darra eman digu inprobisazioa biziberritzeko, eta belaunaldi berriei bultzada emango die, tradizio hau hiltzen utz ez dezaten.

Mundu akademikora ere heltzen ari da inprobisazioa. Ahozkotasuna ikertzen duzu zuk, Argüello.

A.Argüello: Hizkuntza eta Literatura ikasten ari naiz unibertsitatean. Hala ere, oraindik unibertsitatean ez da irakasten payada ikasgai gisa. Inprobisazioa ikasteko eskolak sistema araututik kanpo ematen dira oraindik, lanean ari gara hezkuntza arautuan payada sartzeko. Kordobako probintzian aitzindari izan gara inprobisazioa ikasgeletara eramaten, ikasleek ikus dezaten payada bizi-bizirik dagoen tradizioa dela. Guk ere badugu teleaio bat Argentinan, *Alma gaucha*, horren barruan 10-15 minutu eskaintzen dizkiete payadoreei. Horri esker, jendeak payadoreen aurpegiak ezagutzen ditu.

Bidea ireki behar izan duzue emakumeek oholztan.

T.Quiala: Ni hasi nintzenean, orain dela 35 urte, emakume repentistak erretiratzeko zeuden, zaharrak zirelako. Kontuan izan ni emakume gaztea nintzela, eta itsua. Kubako sisteman berdintasunaren auzia aurreratuta zegoen orduan, baina, hala ere, gizon repentista batzuentzat arraroa izan zen ni han agertzea, neure lekua egiteko borrokatu nintzen. Urte hauetan hasi diren neska gazteak kalitate harrigarriko inprobisatzaile bihurtu dira. Duela bi urte, Yunet López Euskal Herrian izan zen, repentismoaren erreferentea da bera Kuban.

A.Argüello: Argentinan, emakumea bazara arlo guztietan borrokatu behar duzu gehiago. Gure kasuan, Marta Suint, Susana Repetto, Mariela Acevedo... izan

Puntu kubatarren geroaz:

*Pienso que el punto cubano
Patrimonio Inmaterial
De la Humanidad total
tiene futuro en su mano.
Que cada niño y anciano
haga su verso latir
que se deje revivir
en Cuba la tradición
pues será nuestra misión
el no dejarlo morir.*

Tomasita Quiala

[Itzulpen gordina: Gizateriaren Ondare Inmateriala den puntu kubatarrak bere esku du etorkizuna. Haur eta zahar bakoitzak biziberritu dezala bere bertsoa, denon misioa baita hiltzen ez uztea.]

Payadaren geroaz:

*Tenemos los referentes
con un cantar tan profundo
caminadores del mundo
siempre siempre, pues, de frente
traen el verso latente.
Con esto yo te aseguro
que el porvenir yo le auguro
a la eterna juventud
con guitarra o con laúd
en la juventud está seguro.*

Araceli Argüello

[Itzulpen gordina: Erreferentek badiugu, munduko ibiltariak diren horiek, bertsoa beti aurrez aurre ekarri dutenak. Gaztediarekin payadaren geroa bermatuta dago.]

dira aitzindariak, payadaren profesionalak dira. Kuban topaketa asko egiten direnez, emakume asko profesionalizateko aukera dute, baina, Argentinan, ez dago topaketak egiteko hainbesteko ohiturarik. Gurean, *ruedo* edo plaza da garrantzitsuena, eta hor emakumeek botere eskasa dute oraindik, gizonen giroa da. Ni neu familia tradizional batean jaio nintzen eta bidea nekez ireki nuen, hasieran plazan ibiltzen nintzelako, ez antzokietan. Nortasun sendoa dudanez, ekin eta ekin, tokia egin nuen.

T.Q: Ni hasi nintzenean, mundu guztiak esaten zidan beste repentistei "eraso"



egiteko, edo "azpiratzeko", agertoki batean egon beharrean, boxeo ring-ean edo oilarren borroka batean gongo bagina legez. Zorionez, hor garapen bat egon da, guk geuk ere ahalegin handia egin dugu. Kubako publikoari erakutsi diogu lehiatzeko beste modu bat. Repentismoa ez da bestearen gainetik norberaren iritzia inposatzea, arrazoi sendoak ematen jakitea baizik. ■

Elkarrizketa osorik irakurtzeko: www.argia.eus. Bertsolaritzaz duten iritzia, Amerikan egiten diren inprobisazio topaketak eta beste hainbat gai.

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Epikarik bakoak



Igor Estankona

Oraindik buruz errezita nezake Josu Goikoetxearen 1991ko Urruzunoko “behelaino artifiziala/ kartoizko karriketan./ Hiria lotan da/ eta heroiak zera diotso/ neska bular politari: ‘Deboirmetequeroadiós’/ Baina zuk ez,/ zu Englanden egon zinen/ eta haren ezpain lodietan/ besterik irakur dezakezu./ *‘Imustgoloveyoubye’*”.

Eibarren Asier Serranok antolatzen zituen poeta gazteen egunetara etortzen zen, eta isiltasun lodi batekin entzuten genizkion Leonard Cohenek bezain eder, biolentoak ziren poemak. Erreferentziak zeuzkan, oharturik zegoen erritmoaren garrantziaz. Poema haiek unibertsalak ziren, ulerterrazak, normalak.

Normaltasun hori, erraiak inarosten zizkiguna, horixe zen gehien miresten genuena. Eta joan dira ordutik zenbait negu luze, eta Goikoetxea (Gernika, 1974) poema liburu batekin dator, poema normalez eгина, gaztaroko epikarik gabe apika, baina eguneroko bizitzako ekintza heroikoz bete: “Eta hara/ zentro komertzialeko/ arropa dendako/ probadorean/ gizon bat/ gortina ezdeus batek/ ozta estaltzen duen/ metro koadroan/ arropak probatzen”.

Ahapaldirik ahapaldi giza urta-roak badoaz eta badatoz. Haurtzarora ageri da; baita amodioa ere; heriotzaren azken udaberria. Pozik egotekoa da bizirik egon eta Josu Goikoetxearen narotasuna dastatzea, bere begietatik ikustea zenbait trajedia gozo.

Zer luzea negu hau

JOSU GOIKOETXEA

Elkar, 2018



Josu Goikoetxea idazlea
(Gernika, 1974).



Poema itxuraz simple hauen konplikazioaren fruitu ote da lilurabide hori?

Hemen ez da betetzen Koldo Izagirrek *Balitzko erroten erresuman* zioen hura, alegia, ez garela gauza gezurra bezain eder esateko egia. Izan ere, zer da egia, zer gezurra? Giza existentzian, ez al dira biak edertzen? Engainu arrunt hori da liburuaren muina, bidaia den bezala helburuarena: “Itakara/ etorria/ hazia da/ huntz-orria// Ez laudoa/ ez loria/ galduz doa/ memoria”.

Josu Goikoetxearen munduan ilintia, koaderno paper bat, aitaren berokia... dena da arina eta era berean esanahiz kargatua. Dena da sakona eta artificio bakoia. Dena gorena eta apala. Ez da erraza azaltzen, berben aukeraketarekin daukalako zerikusia. Eta barne-erritmoekin. Poeta gazteen egunetan inbidiaz entzuten genituen poema haiek direlako, hainbat negu eta gero, gugana itzuli. ■

» KONTZERTUA

Ahots handiak, emozio gutxi



Montserrat Auzmendi del Solar

Ez dakit izenburuarekin dena esanda ematen duen, baina hala bada, ñabardura asko egin behar ditut emanaldi honen inguruan.

Zer esanik ez, Puccini-ren *La bohème*, konpositore toskanarraren opera onenetako bat da, eta publikoaren faboritoenetako bat, hain kantu ederra, orkestrazio egokia eta libreto sinple eta hunkigarria ditu. Beraz, titulu aproposena denboraldiaren hasieraren arrakasta bermatzeko. Eta, dudarik gabe, arrakastatsua izan zen OLBEren 67. denboraldiaren lehenengo saio hau.

Bestalde, txaloaldi errazak lortzeko proposamen honen atzean kalitatea zegoen. Teatro Massimo di Palermoko produkzio klasiko eta soilak opera honen ikuspegi tradizionala eman zuen, baina zinez eraginkorra. Pariseko Quartier Latina bere bizitasun guztiarekin agertzen zen, oso ondo birsortuta. Nahiz eta eszenaratze sinplea izan, edo, agian, konplikaziorik gabeko *mise en scène* honengatik, gure arreta obraren akzioan eta batez ere musikan zentratu zen.

Pedro Halffterek doitasunez zuzendu zuen Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Soinu-oreka ederra lortu zuen eta fintasunez azpimarratu zituen aria guztiak. Bilboko Operaren Abesbatza eta Bilboko Abesbatza Elkartearen umeen korua fin aritu ziren uneoro.

Azkenik, bakarlarietarako buruz, zer esango genuke, batean kale, bestean bale. Beharbada han zeuden irakurleek pentsatuko dute ez dela oso justua hau esatea, hain ahots ederrak luzitu baitzituzten. Eta egia da. Baina *La bohème* bezalako obra dramatikoan, non sentimendu eta pultsio guztiak bai musikan

La Bohème

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.

Zuzendaria: Pedro Halffter.

Bilboko Operaren Abesbatza.

Zuzendaria: Boris Dujin.

Bilboko Abesbatza Elkartearen umeen korua:

Zuzendaria: Jose Luis Ormazabal.

Eszena Zuzendaria: Mario Pontiggia.

Bakarlariak: Ainhoa Arteta, Teodor

Ilincai, Artur Rucinski, Jessica Nuccio,

David Menéndez, Krzysztof Baczyk

eta Fernando Latorre.

Euskalduna Jauregia.

Urriaren 20a.

bai giroan islatuta dauden, ezin da “ondo kantatu” besterik gabe. Are gehiago, esango nuke garrantzi handiagoa duela emozioa transmititzeak perfekzio bokalak baino. Teodor Ilincai tenore errumaniarrak ahots polita eta boteretsua du, baina adierazkortasuna falta zaio, eta horrexegatik ez zen publikoarengana iritsi. Gure Ainhoa Artetak erraztasunez abestu zuen, bai, baina ukitu engolatua eman zion pertsonaiari eta ez genuen ikusi edo entzun Mimi gazte eta inozo hori. Pena. Jessica Nuncio sopranoak, Musetta-ren rolean, ondo abestu zuen, *Quando m'en vo* aria famatua ederra iritsi zitzaigun. Gainontzeko bakarlariak eraginkortasunez aritu ziren.

Opera honen bukaeran, negar egiten dut beti. Emanaldi honetan, ez. ■



OLBEk antolatutako Puccini-ren “La Bohème”, Euskalduna Jauregian.



Gure zirkutik gure zirkura

GURE ZIRKUA

Noiz: Abuztuaren 29an.

Non: Zarautzen.



Imanol Epelde Pagola

@27zapata

Aurreneko saiakera Aian egin genuen. Zumaian bigarrena. Bietan geratu ginen sarrerarik gabe. Emotikono triste bat sartuko nukeen hemen baina nola Zarautzen, herrian bertan ikusi ahal izan genuen azkenean, ez gara tragediarik egiten hasiko. Gutxiago irribarrea sortzera zetorren ikuskizun batez aritzeko. Eta iritsi zen eguna. Jarri ginen ilaran. Eta aurreneko ezustea. Ilaratik bertatik hasi baitzen ikuskizuna. Jendearen txutxu-mutxuekin batetik: Iker Galarzak Amazonen erosi omen zuen zirkua eta balentria egiten ari omen da ordutik. Eta bestetik, mago bat ilaran barrena ibili zelako esku jolasak egiten. Ezinezkoa egia bihurtzen. Magiarekin.

Sarreran krispeta batzuk hartu eta eseri ginen zirku txiki eta bilduan. Ilun,

bero eta agertokia eskura (diotenez, orain Anoetako estadioan bezala gutxi gorabehera). Gogoratzeko nola gu ere ume ginela joan ginen euskarazko zirku bat ikustera: *Bat eginik*, edo *Bat gara...* (edo asmatu egin dut umetan euskarazko zirku bat gure herrira etorri zela?). Eta gogoratu, azken aldian herritik pasatzen diren zirkuek zein itxura tristea ematen duten, gehienek behintzat, animaliak zirkuan erabili ezin direnetik, galdu izan balute bezala dirdira.


Eta hasi da emanaldia. Artifiziorik gabe. Hizkuntzari berari gorazarre egin nahirik bezala, gertuko, xume, duin. Ikasteko txunditzen gaituzten trapezistek ez dutela zertan izan ukrainar. Bertan ere baditugula artista puntakoak. Herrikide bat, zarauztar bat tartean:

Koldo. Aspaldi batean, Zarauzko mallekoian hara eta hona monozikloarekin ibiltzen zen ahuntz pito maitagarria. Emanaldiaren ildoan eraman dute Iker Galarza eta Joseba Usabiagak eta bata bestearen segidan atera dira artista denak.

Gu ume eta guzti joan gara zirkura. Eta asko gustatu zaie, gustatu zaienez! *Gure zirkua* ikusi, afaldu eta oheratu aurretik zirku txiki bat prestatu ziguten euren logelan. Eurek ere magia egin ziguten kartekin, elkar desagerrarazi zuten, trapezioan ariketa zailak egin. Eskerrak labanekin ezer egitera ez ziren ausartu. Eta kanoirik ez daukagun, bala gizonarena egiteko. *Gure zirkua* ikus-tetik gure zirkua izatera pasatu ginen zirrarez, magiaz eta fantasiaz. ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

ITXURAZ ELKARTE FINANTZARIO	ESKAINTZERA BEHARTU OINARRIZKO EDARI	ASTUN	 Dani Blanco		POLIT, SOTIL ÚDATE	LERDE, ADUR PERTSO- NAIAREN ABIZENA	GORPUTZ ATAL EUSKALKI
EUSKAL KANTARIA DISKO KONPAKTU	ADIA, AUHENA BEHATU, SO EGIN	ABERE-TALDE TXERRI AR	BELTXEKKAK MEDAILA	...-ERDI, ERABAT AISATU ADITZAREN ERROA	UHARTE SARRAILA, MARATILA	ERBIOA ALAIA	NAFARROAKO MENDIA
MARTXA ÓZENKI	EGUNKARIAK SALTZEKO DENDATXO ANTXUMEA	KATEGORIAK, NEURRIAK KASKAR, ZARPAIL	BARRURA JOAN EME SORTZAILEAK	EDARI ALKO- HOLIKO JOKAMOLDE	LEHEN BOKALA KANPO, LANDA	ARRAILDU	
ONTZAT EMATEA, ONESPENA	BARIK PERTSO- NAIAREN IZENA	ARGAZKIAK HARTZEKO APARATUA ZAKUR	HERRESTAN EROAN ÁNPEREA				
ETZANARA- ZIAK ERAGIN ESANGURA DUEN PARTIKULA							
ETIKARI DAGOKIONA HEMEN DAGOENA							

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe eta 3x3 koadro bakoitzean errepikatu gabe.

	4	2					3	
			7					6
7				2		1		
				5		6	8	
8			1	7			3	
6	3			8				
	9		3					4
2				6				
	5				1	9		

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Itsasaldea, itsasertza.
2. Lapur, litxarrero.
3. Sorbalda, bizkarra.
4. Estuki, hertsiki.
5. Neba.

Ebazpenak

2	6	1	4	1	9	2
8	4	6	3	7	5	
1	9	7	4	1	9	2
3	5	4	8	6	9	7
6	3	5	4	8	6	9
8	2	9	1	6	7	5
4	7	1	2	5	3	9
7	6	8	5	3	2	4
9	1	3	7	4	8	2
5	4	2	6	9	1	8

U	V	L	V	K	V	V	R	V	V	U	V	H
N	I	O	V	V	O	V	O	K	I	E	T	E
V	V	V	R	V	V	K	V	V	Z	V	V	V
N	O	N	K	V	N	V	A	T	Z	V	A	N
U	T	U	S	V	I	Z	I	T	Z	I	R	I
	K		V	L	V	M	V	E	G	V	B	E
E	R	E	O	K	O	S	K	O	I	N	N	Z
	L	V	I	R	L	D	I	I	L	V	A	I
K			V	R	E	V	A	R	E	V	A	K
Z			E	R	D	I	Z		O	R	K	
I			U	D	V				T	R	U	S
B	E	E								E	I	

Mariama Diallo. Alternatibetatik aldaketara.



Itsasoari begira

“Salungo delta nuen ikerketa eremu, masterrarentzako. Itsasoaz bi urratsetara, bertakoek kontaktzen zidaten ume zirela itsasoa oso urrun zutela. Orduan konturatu nintzen arazoaz. Arrain gutxiago, laborantzan ekoizpen ahulak, uholdeak... aldaketa klimatikoaren ondorioak geroz eta argiago nituen. Nazioarteko negoziaketei interesaturik, laster ulertu nuen klimaren gaia politikoa zela”.

Aldaketa klimatikoa politikoz ezin banaturikoa dela argi du Mariama Diallok: “Arazoa ez da ekologia edo ingurumenari mugatzen, sistema dugu txarra”. Hori horrela, alternatibak garatzeaz gain, esparru politikoan eragin behar dela dio senegaldarrak. Eta hori laster, berantegi izan aitzin. Hegoko herrien ahotsa entzunarazten egon berri da Baionan antolaturiko Alternatiba egunetan. Justizia klimatikoaren gaian sakontzeko tartea eskaini digu.

“Hegoko herriek dute pairatzen probokatu ez duten aldaketa klimatikoa”



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Jenofa Berhokoirigoin

@Jenofa_B

Nolakoa da aldaketa klimatikoaren konzientzia hartzea Senegalen?

Badakigu itsasoa aurreratuz doala, ingurumen arazoak daudela, baina “aldaketa klimatikoa” nozioa ez da baitezpada erabilia, batez ere baserri munduan. Eskolan ibili ez direnek ez dute baitezpada termino hori erabiltzen, baina arazo bat badela ohartuak dira, natura andeatuz doalako. Arrangura hau sendi da maila instituzionalean, baita Gobernu Kanpoko Erakundeetan ere. Azken lauzpabost urteetan herritar dinamika bat ere garatuz doa. Pozik naiz, Alternatiba sortuz gaia jendarteratzea genuelako xede.

Alternatiba taldeak biderkatzeko deia luzatu zenuten duela bost urte Baionatik.

Alternatiba denetan ereina da, oso ongi gainera. 175 talde sortu dira azken bost urteetan mundu guztian zehar. Gainera, oihartzun handia duela ohartzen gara, ikusiz zenbat herritar batu den Baionan, zenbat hizlari, zenbat komunikabide.

Ez da nahikoa maluruski.

Hozka hau gaintzea da gure erronka, askoz urrunago heltzeko. Besteak beste, mundu mailako dinamikak garatu behar ditugu, Iparraren eta Hegoaren arteko harremanak landuz, eraginkorreragoak izateko, indar harreman bat eraikitzeko. Ezinbestekoa dugu. Arazoa ez da ekologia edo ingurumenari mugatzen, sistema dugu txarra. Demokrazia arazoak, garapen ekonomikoaren ereduak... guztia lotua da. Iduritzen zait sistema bere orokortasunean galdekatzeko bide interesgarria dela aldaketa klimatikoaren gaia. Sistema aldatzeko eta mundu iraunkorrerago bat espero ahal izateko aukera dugu justizia klimatikoaren bidean.

Nola lortu Ipar-Hego harreman justu eta errespetuzkoa?

Koordinatu behar gara, elkarrekin aitzinatu behar gara. Ez du ezertarako balio Frantziar klima defenditzeak, munduaren beste puntan egitasmo kli-



matizidioak burutzen uzten baditugu Frantziako enpresak. Aldaketa klimatikoaz hitz egiterakoan, Ipar-Hego harremanaren gaia ezin baztertuzkoa dugu.

Zuri irakurria: “Mendebaldearen erantzukizun historikoa eta zor ekologikoa ez dugu ahanzi behar”.

Hegoko herriak ari dira probokatu ez duten aldaketa klimatikoaren ondorioen pairatzen. Mendebaldearen arduraz ez da bakarrik historikoa, gaur egungoa ere bada: berotegi efektua dakarten gasen %3,8 igortzen zuen 2015ean Afrika Subsahararrak, %19 Ipar Amerikak, %10 Europak. Hori horrela, justizia klimatikoa behar dugu, Iparreko herriek behar dituzte bestetan eragin kalteak konpentsatu. Ezinbestekoa izan arren, oso gutxi tratatua den eskaera dugu hau.

Zer nolakoak dituzue ondorioak?

Temperaturaren emendioaz gain, erran bezala, itsasoaren aitzinamenduak ditu sekulako makurrak eragiten. Herri osoak dira irentsiak Senegalen; herri-tarrak behartuak dira lekuz aldatzera,

“Alternatibaren mezuaz jabeturik, mundu mailan 175 herritar talde sortu izana baikorki baloratzen dut”.

dena galduz: etxea, lana, tokiko kulturarekiko lotura, lur horietan ehortziriko arbasoak... Arazoak hamaika dimentsio ditu: geografikoa, ekonomikoa, humanoa, kulturala eta abar. Batzuk piragua hartu eta immigrazio klandestinora arriskatzen dira, beste batzuk Hegoan gelditzen dira, hirietan, egoera gogorrean. Laborantzatik bizi zirenek ezin dute gehiago, itsasoaren aitzinatzearengatik lurak gaziegiak direlako. Arrantzaleek haiek ez dute gehiago aski erreserbarik itsasoan. Hori horrela, egunerokoa ezin dugu lasaiki bizi. Elikadura segurtasunaren erronka hor dugu: behar bezala jaten ahalko dugu?

Baina, nola eragin erabaki politikoetan?

Aterabidea ez dugu oraindik, landu behar dugu, irudikatzen lortu behar dugu. Presazkoa da. Betidanik baztertu izan dut politika, ez dut gustuko, zikina

iduritzen zait. Baina, gaur egun ari naiz gu ere herritar gisa doi bat hobendun garelara, sistema politikotik bazter egonez beste batzuen esku uzten dugulako. Gure helburuaren alde doazen legeak pasarazteko bidea izan daiteke politikan inplikatzeari... Ekologia gainditu eta ekologia politikora pasa behar gara, politikaren muinean kokatu behar dugu ekologia, politika produktibista kapitalista hor duguino, ingurumenaren babeserako neurriek ez dutelako emaitzik ukanen. Ingurumenaren babesteak berekin dakar sistema ekonomikoaren aldaketa, ekoizpen eta kontsumo moduen aldaketa.

Gerora begira, zer?

Benetako indar harreman bat lortu behar dugu, alternatibak ez direlako nahikoak. Presionatu behar dugu tokian-toki, nazional zein nazioartean. Urrats ttikiak ez dira nahikoak, aldaketa konkrituak behar ditugu, berantegi izan aitzin. Lan handia dugu, indar harreman hau eraiki behar dugu eta horretarako, estrategiak xeheki marraztu behar ditugu. ■



Motozerren sektorea bultzatzeko diru-laguntza bereziak emango ditu Jaurlaritzak, Saudi Arabiako eskari handia ikusita

Arantza Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapenerako sailburuak iragarri duenez, motozerren sektorea indartzeko asmoa dauka EAeko Gobernuak. "Ikusi dugu azken asteetan mundu mailako merkatua ikaragarri hazi dela, Saudi Arabiak egindako eskariaren ondorioz", esplikatu du Tapiak. "Aukera ona iruditu zaigu merkatu horretan euskal enpresek euren posizioa indartzeko eta horregatik, 1,8 milioi euroko laguntza bereziak emango ditugu". Kazetariak galdetu diotenean Jamal Khashoggi kazetaria bizirik zegoela motozerra batekin zatikatu izanak Saudi Arabiaren eskariarekin zerikusirik duen, Tapiak honakoa erantzun du: "Kazetariak euskal motozerrekin hiltzen ez badituzte, beste nonbaiteko motozerrekin hilko dituzte. Ezin dugu horrelako kontuei begira egon eta gure ekonomiaren hazkunde-aukerak galdu".



SAREAN ARRANTZATUA

Gora Euzkadi azkatuta



Justizia espainiar erara



"Ran rober ran popopopo" Borja Semperren amonari esker jaio zen

Hala kontatu du Barbara Goenaga aktoreak *El Correon*, Euskaraldia sustatzeko diru-laguntzak baliatuz, gaztelania jatorrean plazaratutako elkarrizketan. Goenagaren amamak "Txoria Txori" serbi-leta batean idatzi zuen bezala, Borjaren amonak, txikitik, Intxaurrondoko ate irekien egunera eraman zuen, eta hantxe bururatu zitzaion bilobari abestia, Galindo jeneralisimoa tronpoak egiten ari zela.

Semper eta bera Euskaraldiarekin topa daudela esan du Goenagak. "Une eta animaliekin euskaraz hitz egiten dut nik; maskotarik ez dugunez, Semperrekin ekin diot intimitatean. Etxeko termino erabilienak erakusten ari naiz: mertzzi, lakoste, merzedesa, aitas eta amas, abakando lepo, batasunoa, kutzabank, odrizozola, lopetegi... Eta hori dena kalzadorerik gabe e!, pixka bat es mucho, badakizu. Gainera, jada kapaz da 155



Barbara eta Borjaren belarria euskararen aldeko herri bazkari batean.

arte kontatzeko. Ez dakizu zein pozik jartzen den zifra hori esatean, saltoka hasi eta buztana mugitzen du".



ARGIA

**Zer
emateko
prest zaude?**

**Eta zer
jaso
nahi duzu?**

**INDARTU DEZAGUN INDARTZEN GAITUENA
EZAGUTU HARPIDETZA EREDU BERRIA**

© 943 371 545

www.argia.eus/eginargiako

#ArgiaJendea

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com